

Hilaren 17tik 23ra Jubiladuen Astea antolatu dau Arteako Udalak

12. orrialdea

V. Arratia Raid hilaren 22an

Arratia Raid eta Areatzako Lamino Mendi Taldeak antolatuta, V. Arratia Raid jokatu da urri bigarrenaren 22an Areatzan. Goizeko 10:00etan hasiko da Pagomakurren eta 7 orduko iraupena izango dau. Trekinak, espeleologiak, orientazioak, BTTk eta herri barruko orientazioak osotuko dabe probea.

11. orrialdea



Beñat Mendia txapeldun Bizkaiko Kluben arteko Pelota Txapelketan

11. orrialdea

TOKIKOM

begitu

arratia ubide zeberio

260

2016ko urri bigarrenaren 17a
hamabostekaria
www.begitu.org

Auzuneetako batzarrak Igorren eta Lemoan

Datorren urteko aurrekontuetarako jentearen eretxiak eta proposamenak jasoteko, urtero lez, udal ordezkariak auzuneetatik pasauko dira Igorren eta Lemoan. Batzar horreetako egute-

gia aurkeztu dabe.

Igorren, zerga, tasa eta prezio publikoai buruzko inkesta bat egingo dabe atez ate 300 etxe inguruan. Jaimak be ipiniko dabez eretxiak jasoteko. **5. eta 6. orrialdeak**



GEDren ekitaldia Diman



Urri bigarrenaren 23an izango da, eta bertan, Diman demokrazia sasoian zinegotzi eta alkate izandakoak hartuko dabe parte. Oraingo alkatea dan Nekane Intxaurtzak eta Josune Gorospe Eusko Jaurla-

ritzako legebiltzarkide dimoztarrak testu bana irakurriko dabe herri galdeketeari atxekimendua adierazoteko. Zemendian beste ekitaldi bat egongo da. Orduan, Erabakitze Eskubidean adituak diran hizlariak egongo dira. **7. orrialdea**

ARRATIA

Ongi Etorri Errefuxiatuak-ek asanbladea egingo dau

Ongi Etorri Errefuxiatuak (OEE) Arratia plataformaren hurrengo asanbladea urri bigarrenaren 19an izango da Igorreko Kultur Etxean.

Plataformeak, jatorrizko herrietatik alde egitera behartutako jentearen eskubideak defendiduten ditu eta Arratiako herri guztietan dagoz. OEE Arratiak, Arratia babes herria izatea gura dau eta horretarako lanean dihardu.

Errefujiaduen egunerokotasuna dramatiko eta bildurgarria da. Nazioarteko Legedian onartzen diran oinarizko eskubideak ez dira beteten. Horregaitik plataformeak, "gubernuak egin edo egiten ez dabenaren konplize" ez izateko, mobilizetako deialdia egiten deutse arratiarrai. **7. orrialdea**

ARRATIA

Jabekuntza Eskolea abian da Bardintasan Teknikari barriagaz

Urri bigarrenaren 21 eta 22an, Arratiako Andren Jabekuntza Eskoleak estreineko ikastaroa abiatuko dau Artean. Eskeintzea urri lehenengoaren 30eko jaietan aurkeztu zan. Eskolako aurkezpen jaiagaz batera, ekimena bultzatu eban Miren Urresti Mankomunidadeko Bardintasan Teknikaria agurtu zan. Harrezkerotik, Xabier Pastor Igorrekoa da Bardintasan Teknikari barria. **6. orrialdea**

FRUTERIA BEATRIZ
FRUTEA PREZIORIK ONENEAN!
ASTEKO ESKEINTZA

Letxuga bi	0,99€
10 kilo patata	4,99€
Kalabazina (kiloa)	0,69€
Mandarina (kiloa)	1,19€
Golden sagarra (kiloa)	0,99€

EGUNERO ESKEINTZA BEREZIAK!

Lehendakari Agirre 31 Bis (Igorre) Telefonoa: 94 673 64 51

ZEANURI

80 urte Jose Sagarna fusilau ebela

Urri bigarrenaren 20an, 80 urte beteko dira frankistak Jose Sagarna abade gaztea hil ebela. Frankismoaren krimenen aurkako Argentinako kereila zuzentzen dauan Maria Servini epaile argentinarrak Gernikako epaitegiari eskatuta, urri lehenengoan, Jose Sagarnaren loba dan Jose Sagarna Ocerin-Jauregirik deklarazioa egin eban. Orain dala gitxi Zeanuriko kanposantuan lurperatu ebezan Jose Sagarnaren gorpuzkinak. **8. eta 9. orrialdeak**



ARRATIA ZURI-BALTZEAN

GORBEA TALDEA ETA AGARREKO
FUTBOL ZELAIAREN INAUGURAZINOA

XIX. gizaldiaren amaiera eta XX.aren hasieran, ingeles eraginaren ondorioz, futbola helduko da Euskal Herrira. Kirol barri honen lehen haizeak Bilbotik sartuko dira, eta bere adierazpena 1898an sortuko dan Athletic —"h" ingelesaz— Club de Bilbao taldea izango da. Zaletasuna Bizkaian zehar zabalduz joango, eta Arratiara be helduko da. Arratian futbola bizkorren sustraitu zan herria Lemoa izan zan: 1923rako baegoan taldea, 1925ean federatu egingo dana.

Apurka-apurka bailarako beste herrietan be sortuko dira taldeak. Gerra ostean, Zeanurin, Club Gorbea egoan, eta 1946ko urtailaren 13an Agarreko futbol zelaia

inauguratu eben.

Barazarko igoerearen hasieran, ezkerretara dagoan Agarre baserriaren gainaldean egin zan futbol zelai barria. Burrutzean egoan toki baten eregi zanez, lau metro inguruko desmontea egin behar izan eben, eta horretarako herritarrak behar gogorra egin eben. Lurrezkoa, bedar bakoa, baina garai haretarako zelaia txukuna zan eta jokalarientzat dutxadun aldagelak be eukazana. Akatsen bat eukitekotan, bere kokapena zan: herriko plazatik aparte egoan eta bertara helzteako aldatz gogorra igon behar izaten zan.

Bai futbol taldearen sorrera bai zelaiaren eraikuntza, orduan

Zeanurin abade egoan Jesus Gonzalez zornotzarraren iniziatibeari esker gauzatu ziran.

Inaugurazio ofizialari On Jose Arrizabalaga herriko parrokoaren bedainkapenagaz emon jakon hasikerea, eta jarraian baloia jokoan jarri zan. Galdakaoko Santa Cruz eta Zeanuriko Gorbea taldeen arteko norgehiagokea, galdakoztarren garaipenagaz amaitu zan, 4-3ko emoitzagaz eta oroigarri moduan emon zan kopeak Galdakaora iges egin eban.

Zeanuriztarren soinekoa fraka zuriz, alkondara urdinez eta galtzerdi baltzez osotzen zan eta zelairatu eben hamaikakoa honako hau izan zan: Pontxo, Luziano Atutxa, Angel, Txabi Madariaga, Txabi Manterola, Juan Uriarte, Gallaga, Esteban Sagarna, Patxo Ibargutxi, Delbin Manterola eta Patxo Emaldi. Zazpi futbolari Zeanurikoak ziran eta lau



Elorzaren argazkia. Ezkerretik eskoira: Patxo Emaldi (Gorbearen kapitaina), Gerrikabeitia (epailea), Federakundeko ordezkaria, Iñaki Iturbe Potes (eleizmutila), On Jose Arrizabalaga (apaiza), Sole Intxaurbe (amabitxia), ezezeguna eta Barandika (Santa Cruzen kapitaina).

inguruko herrietakoak.

Ordura arte etxeko partidua Igo- rren jokatu behar izan baebazan,

une haretatik aurrera bere zelaia eukan Zeanuriko Gorbea taldeak.

Jon Urubxurtu

TELEFONO INTERESGARRIAK

Larrialdiak

Galdakaoko Ospitalea 94 400 70 00
SOS DEIAK 112

Guardiako Farmaziak

09:00etatik 22:00etara

Urri bigarrenaren 17tik 23ra

N. Arrieta Bereciartua. Lemoa. Atutxa Sailburua 1
Tel.: 94 631 30 18

22:00etatik 09:00etara

Guarrobena. Amorebieta-Etxano.

Urri bigarrenaren 24tik 30era

Rodriguez Martinez. Igorre. Agirre Lehendakaria 27
Tel.: 94 673 61 09

22:00etatik 09:00etara

Goiria-Montoya. Amorebieta-Etxano.

Urri bi. 31tik zementziaren 6ra

Ibarrola. Zeanuri. Arregia kalea 1
Tel.: 94 673 93 95 eta 609 402 908

22:00etatik 09:00etara

Melero. Amorebieta-Etxano.
Zeberioak ez dau guardiarik egiten.

Urte osoan**22:00etatik 09:00etara**

Lucia Luño. Kareaga Goikoa 16. Basauri.

Medikuak

Arantzazu: 94 631 56 89

Artea: 94 673 92 11

Areatza: 94 631 71 52

Bedia: 94 631 34 13

Dima: 94 631 56 30

Igorre: 94 600 74 63

Lemoa: 94 631 31 16

Ubide: 945 45 03 61

Zeanuri: 94 673 91 49

Zeberio: 94 648 20 79

Udaletxeak

Arantzazu: 94 631 56 89

Artea: 94 673 92 05

Areatza: 94 673 90 10

Bedia: 94 631 42 00

Dima: 94 631 57 25

Igorre: 94 631 53 84

Lemoa: 94 631 30 05

Ubide: 945 45 03 22

Zeanuri: 94 673 91 46

Zeberio: 94 648 10 79

Udalen Mankomunitatea

94 631 17 17 / Faxe 94 631 92 15

Gorbeialde

94 631 55 25 / Faxe 94 631 71 01

Parketxea

94 673 92 79

Igorreko Kultur Etxea

94 673 62 51

Gorbeialde Irratia

94 631 52 90

Trenak

Euskotren 902 543 210

Bizkaibus* 902 222 265**Zeanuri-Lemoa-Ospitalea-Bilbo**

Lanegunetan: Lehenengo 05:00etan.

Ordu erdiro: 05:15etik 06:45era.

Orduro: 06:45etik 21:45era. Azken zerbitzua 22:00etan.

Zapatuetan: Lehenengo 05:00etan.

Orduro: 05:45etik 21:45era.

Jaiegunetan: 07:45etik 21:45era orduro.

Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Zeanuri

Lanegun eta zapatuetan: 06:15etik 22:15era orduro.

Jaiegunetan orduro 07:15etik 22:15era.

Durango-Lemoa-Ospitalea-Bilbo

Lanegun eta zapatuetan: 06:30etik 22:30etara 30 minuturo, azkenengo 22:15ean Galdakaoraino.

Jaiegunetan: 07:00etatik 22:00etara 30 minuturo, azkenengo zerbitzua 22:45ean Galdakaoraino.

Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Durango

Lanegun eta zapatuetan 06:30etik 22:30era 30 minuturo.

Jaiegunetan 07:00etatik 22:30era 30 minuturo.

Ubide-Otxandio-Lemoa-Bilbo

Ubidetik urteerak, lanegun eta zapatuetan: 06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Jaiegunetan: 08:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Otxandiotik urteerak:

Lanegun eta zapatuetan: 06:55etik 20:55era orduro.

Jaiegunetan: 08:55etik 20:55era orduro.

Bilbo-Lemoa-Otxandio-Ubide

Lanegun, zapatu eta jaiegunetan, Otxandiora: 06:45etik 20:45era orduro.

Ubidera: 06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Zeanuri-Lemoa-Bilbo (Autopistatik)

Lanegunetan: 07:00etan lehena, eta 08:15etik 21:15era orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Bilbo-Lemoa-Zeanuri (Autopistatik)

Lanegunetan: 07:00etatik 21:00etara orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Artea-Zeberio-Arrigorriaga

Arteatik urteerak lanegun eta zapatuetan 06:55ean eta 13:55ean.

Jaiegunetan ez dago zerbitzurik ez.

Zeberio-Arrigorriaga

Lanegun eta zapatuetan 07:10, 08:10, 09:10, 11:10, 14:10, 15:10, 16:10, 18:10, 19:10, 20:10

Jai egunetan 08:10, 11:10, 14:10, 17:10, 20:10.

Arrigorriaga-Zeberio-Artea

Arrigorriagatik 12:40ean urtetan dan zerbitzua Artearaino heltzean da lanegun eta zapatuetan.

Jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Arrigorriaga-Zeberio

Lanegun eta zapatuetan, 07:40, 08:40, 10:40, 12:40, 14:40, 15:40, 17:40, 18:40, 19:40, 20:40.

Jai egunetan, 10:20, 13:20, 16:20, 19:20.

La Union* 94 427 11 11**Bilbo-Gasteiz**

Lanegunetan: Ubidekoak 09:15ean urtetan dau eta Otxandioak 16:00etan.

Zapatuetan: Ubidekoak 09:00etan eta 16:30ean urtetan dau Bilbotik.

Jaiegunetan: Ubidekoak 10:00etan urtetan dau eta Otxandioak 18:30ean.

Gasteiz-Bilbo

Lanegunetan: Ubidekoak 09:00etan eta 16:15ean urtetan dau Gasteizetik eta Otxandioak 10:30ean.

Zapatuetan: Otxandioak 10:30ean urtetan dau Gasteizetik eta Ubidekoak 16:30ean.

Jaiegunetan: Ubidekoak 16:30ean urtetan dau Gasteizetik. Otxandioak ez dago.

Babesleak:

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundutakoa



Argitaratzailea: ZERTU Kultur Elkartea.

Helbidea: Herriko Plaza 24, 48142 Artea.

Telefonoa: 94 631 73 14.

Helbide elektronikoa: begitu@topagunea.com

Webgunea: www.begitu.org

Zuzendaria: Iñigo Iruarrizaga.

Erredakzino burua: Beatriz Azpiri. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 112.

Erredakzino taldea: Raket Aldekoa Diez, Jose Mari Kortazar, Irati Urien eta Jon Urubxurtu.

Maketazinoa: Beatriz Azpiri eta Iñigo Iruarrizaga.

Publizidadea: Iñigo Iruarrizaga. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 115.

Banaketea: Marta Rodriguez, Pablo Rodriguez eta Rut Rodriguez (Lemoa eta Bedia), Ibai Milikua (Areatza), Iratxe Arribas (Zeanuri), Berbizkunde Arroita (Zeberio), Amaia Uriarte (Dima), Esti Olibares, Iker Perez eta Ismael Martinez (Igorre) eta Ainhoa Mendia eta Irati Urien (Arantzazu, Artea eta Ubide).

Tiradea: 7.000 ale.

Inprimategia: Iparragirre Editoriala.

Ale kopurua 7.000 / Lege gordailua SS-512/02 / ISSN zenbakia 1579-5519

ZEURE BERBEA

ZAD

Espazio Zone A Défendre. Hori da ZAD. Babestu Beharreko Gunea. Nantes, edo britainiarrek deitzen daben moduan, Naoned uriaren ondoan badago atzen sei urte honetan burruken konbergentzia eraginkor bat, heldu barrien eta biztanleen politizazioa, auto-formakuntza eta bizimolde kolektiboen eraikuntza gauzatzen dituan eremu askea: Notre-Dame-des-Landes.

Baina zer dala eta holako eremu aske bat? 1972tik nazioarteko aierportua egin gura dabe lur horretan eta orduztik milaka lagun dagoz proiektu horren aurkako okupazio iraunkorra aurrera eroaten, bertako laborariak egindako deialdiari jarraituz. Baina nor dago proiektu txikitzaile horren atzean? Vinci enpresea. Enpresa horrek 200 hektarea apurtu gura ditu, tartean hezegune garrantzitsu bat.

ZADen, ikusten da posible dala kapitalismoaren helburuak ezetz esan eta burujabetasuna gaurdanik egitea. Guda-zelai sutsua bilakatu da azken hamarkadan, baina aireportu baten kontrako burukea baino askoz gehiago da: kapitalismotik kanpoko bizitza eredu baten hazia da, alkarta-

suneta eta auto-kudeaketan oinarritua.

Barne ika-mikak ez dira falta, baina gaur hara hurreratzen danak errez sumatu leikez bertako animoak: jardun, alkarrerik lagundu, errotu, epe luzera jo.

Indar erakustaldi horren aurrean, gobernua ez daki zer egin. Epaileri dei egin deutse askotan, poliziak kopuru handian bidali, inkesta eta txosten interesuak agindu, bertan "basa oihanaren legea" dagoala sinistu arazo, sasi-erreferenduma antolatu... alperrik. Notre-Dame-des-Landes aurrera doa beti.

Euskal Herrian militantzia molde barrituak bilatzen gabilzanontzat, Notre-Dame-des-Landes aberasgarri, baikor eta maitagarri jaku. Nok esan eban kapitalismotik kanpo ezin zala bizi?

XABIER GUTIERREZ

Arranoa libre

Euri asko egin dau 2012ko maiatz haretan, arrano baltza eukan bufanda bategaitik 3.001 euroko isuna jaso nebanetik. Gutun hau zorretan nauan personentzat idatzi gura izan

dot, musutruk laguntza emon deuten guzti horreentzat. Gogoratzen dodaz momentu honeetan Arranoa Libre taldea sortzeako prest egon ziran Rafa, Aritz, Ekaitz eta bertaratu ziran guztiak. Errifak saltzean eta sinadura bilketan etenbarik lagundu deuten Itsaso (Onea ta Amaiur saltzaile finak), Aitziber, Irantzu, Urdax eta Esti, Arratikada kuadrilea, Igorreko EH Bilduko jentea, saltzeako prest egon ziran tabernak eta zelan ez, hau guztia lehen personan nigaz sufridu daben Ainhoa, Aratz eta Onea. Ordu asko emon doguz babes ekonomikoa (errifak saltzean) eta soziala (sinadura bilketea eta udaletako mozinoak) lortzean. Badakit alkartasunak ez daukala preziorik baina bai esan gura deusuet, zuei guztioi esker gaur egun prozesuak aurrera darraiel eta irabazi edo galdu behintzat saiatzen gabizala.

Eskerrik asko.

JON BILBAO ATXUTEGI

Zeure Berbea

Espazio hau irakurleentzako espazioa da. Irakurleak gura dauana adierazoteko lekua. Bialdu zuen kexak, eskerronak, hausnarketak, burutazioak edota ideiak karta baten bidez eta erabili BEGITU beste irakurleai zuen ikuspuntuak helarazoteko. Argitaratzeko derri gorrezkoa da izen osoa, NA-ren zenbakia eta herria emotea.

Zeure Berbea hamar herritan entzungo da. Zeuk daukazu berbea. Entzuteko prest gagoz.

Hauxe dozu helbidea:

Zertu Kultur Elkarte
BEGITU aldizkaria
Herriko Plaza 24
48.142 Artea

Edo, helbide elektronikoa honetara bialdu zure gutunak:
begitu@topagunea.com

BEGITU ALDIZKARIA

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu makinazko 15 lerro baino gehiago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, BEGITU eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: Zertu Kultur Elkarte. Herriko plaza, 24. 48.142 Artea edo begitu@topagunea.com helbidera.

GEURE BERBATEGIAREN LEIHOTXUA

ANGEL LARREA ETA JUAN REKALDE

Lepo



Personearen beso bien ganeko alde bakotxari lepo deritxagu (lepóa, agoskatuta). Lepoa adierazoteko badagoz beste berba bi honeek be: lepogane eta lepo-gailur. Personearen esku ganeko alde, esate baterako, eskulepoa da. Bizkarrari, hau da, sorbaldatik garrirainoko atzeko aldeari be lepo esaten deusagu. Bizkar-hazurra esateko lepoko-erosario eta lepoko-hazur berbak erabilten dira Arratian. Azkenik, bizkarrez jausten danean bat, holan esaten da: "Lepoz jaustea ez da bape ona". Oстера, euskera batuan lepoa, samea da.

ERETXIA



GARAZI SANTOS

Ingurumen Zientzietako ikaslea

Lurra zaindu daigun

Azken 12 urteak inozko beroenak izan dirala irakurri neban aurrekoan aldizkari baten. Artikuluaren arabera, aurtengo maiatzean inozko daturik beroenak jaso dira 0,93°C-tako batz besteko tenperatura igoereagaz. Zergaitik? Uste dot, zoritxarrez, danok dakigula errazoa.

Aldaketa klimatikoa mundu mailako klimaren aldaketari deituzen jako. Aldaketa honen adibideetako bat sarri entzuten dogun negutegi efektua dalakoa da, non eguzkiaren beroa atmosferan geratzen dan espaziora iges egitea ekiditen deus gas batzuen erruagaitik. Karbono dioxidoa, oxido nitrosoa eta metanoa dira baliabide naturalen gehiegizko erabilerearen ondorioz sortzean diran protagonista honeek, zeintzuk egia esan, bizia mantenduteko beharrezkoak diran. Baina, jakina, neurri batean, gauza guztiak bezala. Errazoiak naturalak edo antropikoak izan daitekez, baina nagusia, duda barik, gizakiok eragindakoa da.

Giza osasunari kalteak, habitaten desoreka, basamortuen hedatzea, poloetako izotz-geruzen urtzea, ur edangarriaren faltea, lehorteak, itsas-mailaren igoerea, kalteak uzta garaian... Ezagunak? Ba honeek dira berotegi-efektuaren ondorioetako batzuk. Zergaitik? Deforestazioagaitik, erregai fosilak erretzeagaitik, egungo hondakinen kudeaketeagaitik... eta abar luze bategaitik. Zientzialari batzuek dinoenez, tenperatura 2°C igo ezker, aldaketa klimatikoaren inpakturik larrienak

jasango doguz. Beste batzuek mende amaierarako 4,8°C-tako igoerea be izango dogula dinoe. Hortxe hausnarketarako datu batzuk eta neure buruari askotan egiten deusadan itauna: zer egingo dogu hau konpontzeko?

Laster urte bete izango da Parisen COP21 dalakoa burutu zala. Konpromisoak asko; ea beteko diran ikusteko dago. Hauteskundeak be, pluralean, pasau dira, baina ingurumenaren inguruko aitamenak eskasak izan dira. Garoñaren gorabeherak be hor dagoz, oraindino zabaltzeko aukerak eztabaidan, hondakin nuklearrak kontuan hartu barik edo. Zer esanik ez errauskailuak dirala eta. Batzuen berbetan, antza ez dabe ezelako inpakturik eragiten, eta hobe da gas hilkorak isurtzen dituan munstro bat eregitea hondakinen kudeaketa eraginkorrean inbertidutea baino.

Baina konsumitzailuek zer? Guk be badaukagu zer egin, bai, eta asko gainera. Sortzean dan energia guztia norentzat da ba? Zabortegetara doazen hondakin guztiak nor sortuak dira? Gure bizimoduaren aldaketea ezinbestekoa da gauzak aldatu gura badoguz. Ondo dago energia barriztagarriak bultzatzea, adibidez, baina horrek ez dau esan gura gure energia konsumoa murriztu behar ez dogunik. Ezpabere, ezinezkoa izango da nuklearrak edo termikoak historiako puntu baltz bat lez atzean ixtea.

Aurrera ba energia barriztagarriak, birziklatzea, bertako produktuen konsumoa, garraio publikoa, konsumo bajuko aparatuak... Aurrera ba konsumo arduratsua! Egunak aurrera doaz gure planetak atzerako pausuak egiten dituan bitartean. Zaindu daigun gure ama lurra!

BATZ 50 urte

BATZ, S. KOOP.
Torrea auzoa, 32
48.140 IGORRE (BIZKAIA)

IZAN GINAN...

...BAGARA ETA IZANGO GARA

Enpresak Batzua gaitu

MONDRAGON

LUMATUTEN



IDOIA LEGARRETA

Maite ditut maite gure bazterrak, lanbroak izkutatzen dizkidanean

Egun guztiko ibilaldia eta gero, guztiz aldentuta egoan laku batera heldu ginan, behelainoaz guztiz inguratuta egoana. Motxilak aldetik kendu eta lo lekua prestatzeari ekin geuntsan: harriak pilatuta bibakak eregi genduzan, lo zakuak eta esterillak lurrean ipini... Sabela bete eta ilundu bezain laster lotara joan ginan, leher eginda gengoan. Guztiz lo nengoala, bat-batean norbaitek garrasi egin eban: "Ei, zer da zarata hori?".

Frontala izetu eta hara, azagaria niri so. Segundu bat, bi, hamar. Ez bildurrik, ez urdurita-sunik, ez ezer. Zergaitik ez doa nire presentziaren aurrean? Hara hor lukia, zera baino lasaia go jatekoaren bila, ingurukoaren ardura

barik gizakien artean. Noz ikusiko halakorik? Zarata egin eta ezer; harri bat bota, beste bat; baina ez zan aldentzen. Lortu neban, azkenerrako. Eta lo zakura sartu nintzan barriro be, lo gozoan jarraitzeko asmoz. Begiak ixten hasi jatazan, gorputza harri erraldoi bat izango balitz moduan jausten...

Eta bat-batean barriro be zaratak. Frontala izetu, eta azagaria barriro be gauzen artean musturra sartzean. Orro bat bota, galapada batzuk egin. Baina alperrik, bestaldean agertzen zan. Nire onetik ateratzen hasia nintzan: ez eustan loak hartuko gau haretan... Lortu neban barriro be eta etzan nintzan, baina oraingoan belarriak tente nebazala: buelta bat alde baterantza, beste bat beste alderantza... Zer da hori, zaratea edo haizea?

Itzartu nintzan hurrengo egunean, lanbro artean sartzean zan eguzki meheagaz. Ingurura begiratu eta beste guztiak lo egoan. Gauekoa benetan pasau zan ala ametsa izan zan? Besteak esnatu arte, ezin jakin. Bitartean, aintzira alboko laino artean pentsau neban leku basatiak, ezezagunak eta miresgarriak amesten doguzala, heldu gura doguzala. Baina leku horretara heltzean garen heinean, desagertuz doazala.

ZERTZEAN



ALVARO RABELLI

Slow

Marcelus Leontief Kanadako idazlea da. Idazle guztiak lez, harek be, bere Ophelion anaiagaz batera, zeharkatuak ditu Etiopia inguratzen dituan area desbardineko bederatziz zirkuluak; hau da, bizitzari beste norabide bat emoteko beharizan gorria dauka. Ze, gaurko sasoiak, hiperkapitalismoak ekarritako ultramodernidadeak ia arnas barik itxi dau. Marcelus, oraintsu arte, goizeko seiretan altzau izan da ohetik, egunero-egunero, ostean, karraderan kaloria askotako armozua hartu, umeak eskolara eroan, amaxea eguneko zentroan itxi botika dendan edadekoentzako pixa oihalak erosi ondoren —hiru boltsazar biren prezioan— banketxetik pasa hipotekarena egiteko, gimnasioan ordubetez ibili inora ez doan bizikleta baten gainean... Olivetti zaharraren aurrean jarri izan danerako egunari nabarmen gitxitu jakoz orduak, eta orduan be, presak jota, orrialde zurien zorabioa galapan bete behar. Baina, gaur ez, gaur bestelakoa izan da. Ez da konturatu jaieguna zanik be, horregatik, umeak eta amaxea non itxi ezin asmatu, Ozeano Bareko hondartza baten ikusi dau bere burua, bakarrik. Beno, ez hain bakarrik, ze, *shark* deslai batek haginkada ederra emon deuto surf taula zaharrari, Marcelusek hainbeste urtetan erabili izan ez dauan taulari. Zorte handia euki dau

Marcelusek, heriotzaren hagineta alde egin dau. Eta hantxe, Vancouver-ko areatza hatan, bizitza beste modu baten bizi behar dala ebatzi dau. Gaubean ekin deuto, Olivetti zaharraren tekla beharrean hasi dira, astiro, Marcelusen pentsamentu ildoari bidea emonez. *Slow* bizitzaren gaineko saiakerea izango da, jenteari lagunduko deusana zelau aurre egin estutzen gaituan egunerokotasun modernoari. Askatu gaitzean teknologia barrien morrotatik! Egin daigun gogoak emoten deuskuna! Itxi alde batera zaratea eta ardaila! Erreparau daigun bizitzaren gauza txikerrai! Jan daigun hobeto! Gora alferkeria unibertatsala! Eta batez be, egin eizuz gauzak *slow-slow*! Marcelusen aldarriak bata bestearen atzean harilkatu dira. Liburuak itxura ona dauka, eta egileak jakin badaki ondo salduko dana. Libururik salduena izango da supermerkatu guztietan, *Calendar girl* best-sellerraren ondoan.

Horregaitik, gaur, liburu amaituta, inoiz baino arinago jaitsi ditu eskailerak Marcelus Leontief-ek. Inoiz baino arinago hartu dau autoa argialetxera ailegetako, inoiz baino arinago abiatu da autopistarantza, inoizko abiadura gehiengan ipini dau autoa; eta, atzenez, poliziak be ez hain *slow-slow* isun ederra ipini deuto abiadura horretan gidatzeagaitik.

* Zertzean atalean argitaratuko doguzan testuak, literarioak edota sormenekoak diranez, heltzean diran moduan argitaratuko doguz eta ez doguz gure euskera eremuan ipiniko.

Tarte hau zeuretzako be dago zabalik, holango sormen-lanak BEGITUN argitaratu gura izan ezker, eskatu egiguz argitaratzeko baldintzak begitu@topagunea.com helbidean.

BEGI TXINDORRA

Ezer ez da betiko eta inperio guztiak jausi eta galdu egiten dira. Edo menpean egon diranak bota egiten dabez, tragau. Ezer ez da betiko eta sasoi baten oinarri baten gainean egon diranak, lurrean botata agertzen dira gero, beste batzuk oinarri horretara igon diranean.

Utopia ete da inor ez egotea oinarri gainean eta inor ez lurretik botata?

Ezer ez da betiko eta esperantza apur bat badakar hori jakiteak, neoliberalismoa indartzen, sendotzen, egonkortzen, zabaltzen eta basatiago egiten doan une honetan. Hori be jausi eta galdu egingo da, eta jainkoak dirudienak, kasurik onenena, egoera errukigarrian egongo dira.

Izan be, argazkian ikusten dan lez, jainko baten moduan aldare baten gainean dagozan askok, barrua hutsik daukie eta ez dira, inondik inora, emoten daben bezain sendoak.

Argazki hau Sizilian atera eban Maria Vidal gure irakurleak, eta BEGITUREN Oporretako Argazki Lehiaketara bialdu eban.



Gorosti Lorategien Diseinu eta Gauzatzea
Ureztaketa instalazioa
Mantenua eta Inausketa
Bidosola Industrialdea E2 Pab. 48.142 Artea
Tel: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88
gorosti@gorostisc.com

agoa Ortodontzia
Implanteak
Estetika
Marina Urigoitia Aldekoa
Ondarregia
Bidebarri 1. behea
48140 Igome-Bizkaia
T. 94 631 50 39
Hilabeteko Zerbizua: 900
R.P.S. 21/06

Abel Lapatza Iza
Taxi zerbitzua 24 ordu
Dima
946 317 252
608 287 249

FISIK
FISIOTERAPIA ETA
ERREHABILITAZIO ZENTROA
Tel. 94 685 11 16
LEHENDAKARI AGIRRE, 17 - IGORRE

IGORRE

Atez ate inkestea egingo dau Udalak, igorrezarren eretxia jasoteko



Erredakzioa

Auzo batzarrak mantenduko diran arren, Igorreko Udalak, herritarren eretxia jakiteko zerga, tasa eta prezio publikoai buruzko inkesta bat prestatu dau. Jasotako informazioa baliogarria izango da 2017ko aurrekontuak egiteko.

Inkestea egiteko modalidade bi egongo dira. Alde batetik, modu aleatorioan aukeratutako 255-355 etxeetara joango dira inkestatzailerak; hau da, atez ate. Bestetik, udalak horretarako ipinitako jaimetan be bete ahal izango da inkestea. Izan be, igaz lehenengoz egin eben moduan aurten be jaimak ipiniko dabez eta kalean egongo dira udal ordezkariak: eskola ondoan, anbulategi ondoan, kiroldegian, 105ean eta erdigunean. Inkestak beteteaz gainera, udal kudeaketaren gaineko informazioa be jaso ahal izango dabe igorrezarrak gune horreetan.

Inkestan Udalak emoten dituan zerbitzuen asebetetze maila galdetuko da. "Eta jentek zelan ikusten dauan korporazioaren lana. Gero, emoten diran zerbitzu batzuetako prezioa zenbateraino dan egokia galdetuko dogu. Adibidez, udalak finantziau egiten dauz kurso gehienak. Laguntza hori zenbatekoa izan behar dan galdetuko da" azaldu deutso

BEGITURI Beinat Anzola Igorreko alkateak.

Inkestan agertuko diran beste gai batzuk, legez kanpoko eraikinak, aparkalekuak eta tabernen funtzionamentua dira.

Auzo batzarrak

2017ko aurrekontuetarako jentearen eretxia eta proposamenak jasoteko, auzuneetatik be pasauko dira udal ordezkariak, urri bigarrenaren 18, 19, 20, 25 eta 26an.

Urri bigarrenaren 18an, Urkuzo eta Garakoiko auzotarrak Udal ordezkariak Urkuzuko txokoan, 19:30ean batzeako aukerea daukie. Hurrengo egunean, San Juanekoak, San Juaneko Txokoan 18:00etan eta San Kristobalekoak, San Kristobaleko Txokoan 19:30ean.

Hilaren 20an, gazteak egin ahal izango dabez euren ekarpenak Gaztetxean 18:00etan, baita Garbe eta Mikele auzokoak, leku berean, 19:30ean.

Hurrengo asteko martitzenean, hilak 25, Gezala eta Basauntzeko biztanleen txandea izango da. Honek udaletxean daukie zitea arrastiko 18:00etan.

Urri bigarrenaren 26an, Jubiladukaz batuko dira udalekoak, 18:00etan, Jubiladuen Txokoan eta 19:30ean Kultur Etxean, kultura eta kirol alkartetakoakaz.

IGORRE

Errotonda amaitzeaz, aurrera doa erdiguneko eraldaketea

Erredakzioa

Bilbotik etorrita Igorreko sarrerako errotondako lanak amaitzeaz dagoz. Ha ta guzti be, obrak ez dira amaitu. Oraindino beste zati batzuk falta dira Agirre Lehendakari kalea eta inguruak guztiz eraldatuko dabezan lanak amaituteko.

Errotondako lan gehienak egin da dagozala dino Beinat Anzola Igorreko alkateak, "pendiente dago farolak-eta inpintea eta autobusen geralekua bere lekura bueltetea". Farolak inpintea atzeratu egin da, baina lorezaintzako beharrak, aurreratu egin ditue "eurriak ez harrapatze". Gainera, alkateak dino lanok aprobetxau egin dabezala aurreko urteko auzo batzarretan eskatu eta egin barik geratu ziran hainbat gauza egiteko: pintaketa lan batzuk, ar-bola batzuk moztu eta abar.



Erdiko zatiak zailtasun ugari

Sarrerako lanak amaitutakoan, Agirre Lehendakaria kaleko beste zati batzuei ekingo deutsee orain. Arazo administratiiboak egon dira eta atzeratu egin dira zati bateko lanak. Zamaletarako eta zaka-rrontzietarako gunea egon behar da hor.

Errotondako lanak amaituta, errekaraino errekaraino bat eroango

dauan hodi bat sartzeako Kirikiño taberna dagoan kalea apurtuko dabe. "Udaletxearen ostean frontoiaren gaineko alderditik dator errekaraino bat, antxina hodi baten sartu zan eta hodi horrek arazoak ekarten dauz etxe baten azpian dagoalako sartuta. Desbideratu egingo da eta kotak askoz hobeto emoten dabelako Kirikiño tabernako kaletik aterako da".

AREATZA

Areatzak bere historia hartu eban ardatz Euskal Jaian



Erredakzioa

Urtero lez, billaroztarrak herriko kaleak hartu ebezan urri bigarrenaren 15ean, erropa tradizionalkaz jantzita. Eskualdeko pro-

duktuen azokeak, herri bazkariak eta erromeriak, besteak beste, ipini eben euskal jaigiroa herrian. Bederatzigarren edizino honetan Areatzako historia errepasau eben.

Mikel Urrizek gidatutako ibilbidean, Areatzakoak eta kanpokoak, herriko historiaren barri jaso eben: sorrerea, burdinolen garaia, balneario eta tranbiarena, presearen eraikuntza eta XXI. mendeko migrazioa... aitatutako lekuak zuzenean ikusi bitartean.

Areatzako Euskal Jaia ezin da ulertu, azoka barik. Plazan, inguruko ekoizleak euren produktuak erakutsi ebezan eta arkupeetan, Bizkaiko Dantzarien Biltzarrak antolatuta euskal erropen erakusketea egon zan. Jentetsua be izan zan jantza-poteoa Patxi Laborda eta Hala Dzipoko musikariakaz. Areatzako argazki zaharren eta Tranbiaren erakusketea.

Bazkalostean, gizaprobako Harriti andra taldea, herriko 8 andren kontra neurtu zan. Harriti taldeak 24 untze eta laurden egin ebezan eta herriko taldeak 19 untze, 22 metro eta 20 cm.

publizitatea
94 631 73 14 eta 649 979 115



www.begitu.org

Gugaz harremanetan ipinteko
94 631 73 14 eta 649 979 112
begitu@topagunea.com

arratiako instalazioak s.l.

Berokuntza - Iturgintza - Gasa

Aireztatzeko sistemak
Aire zurgatze zentralizatua
Suteak kontrolatzeko zerbitzuak eta mantentze lanak

Igorreko Industrialdea
Pab. D7
Tel. Fax. 94 673 62 76
Tel. 619 736 516
48140 Igorre Bizkaia

RUGBY TABERNA

•Egin zaitetz bazkide!
•09:30etik zabalik
•Asteburretan pintxo bereziak



arratiko.zekorrak@gmail.com
http://santxisme.blogspot.com/

ARA OTZ

Landareen O Jabetzen!

OPEL

Ibaigane, S. Coop. Ltda.

Estazioa, 15
48330 LEIZOLA (Bizkaia)
Tfn. 631 33 30 - 631 31 31
Fax 631 36 15

LEMOA

2017ko udal aurrekontuetarako proposamenak egiteko egutegia

Erredakzioa

Udal ordezkariak Lemoako auzuneetatik pasauko dira urri bigarrenaren 18, 20, 25 eta 27an, bertan bizi dan jentearen proposamenak eta eretxiak jasoteko. Holan, herritarrak 2017ko udal aurrekontuetarako euren ekarpenak egin leikiez.

Hilaren 18an, udaletxeak Txiriboketako buzoian egongo dira 17:30ean, Txiriboketa, Azurreka, Arraño eta Txixotegiko jentearen eretxia eta proposamenak zuzenean batzeako. Hogei minutu beranduago, buzoian, Aiziti, Landitze eta Zabalekoak dagoz deituta. Atzenik, 18:15ean, Larrabeitiko kontenedoreetan Iturritxe, Larra-beiti, Elorriaga eta Atutxolakoak.

Hilaren 20an, 17:30ean, Plazako buzoian Arraibikoakaz berbetan egongo dira udalekoak. Hogei mi-

nutu beranduago, 17:50ean, Estazioa eta Durundiokoen txandea izango da estazinoko buzoian. Eguneko atzen zitea Tallerreta, Lemo-rieta, Haizea, Bolunburu eta Agarrekoak daukie. Honeek 18:15ean, eskolako buzoian batuko dira udal ordezkariakaz.

Aurrekontuetarako proposamenak egiteko hurrengo hitzorduak hilaren 25ean izango dira. 17:30ean, buzoian, San Inazioakoak batuko dira udaletxeak; 17:50ean, Kultur Guneako buzoian Elizondokoak eta 18:15ean, Correosen Intzuntzako auzunekoakaz.

Atzenik, hilaren 27an, 17:30ean Mendietakoak buzoian, eta 17:50ean, Pozueta eta Arantxe-koak, Pozuetako buzoian izango dabe 2017ko aurrekontuetarako proposamenak zuzenean egiteko aukerea.



Lemoako Elizondo.

ARTEA

Bobeda zaharbarritu eta pintura lanak parrokian

Erredakzioa

Bobeda eta pintura zaharbarritze lanak zemendiaren amaierarako amaituta egongo dirala espero dau Jose Mari Kortazar parrokoak. Lanak 60.000 euro inguruko aurrekontua daukie.

Arteko eleizea, barritzatzen hasi ziran orain dala sei urte. Itoginak egon ziran eta hareek konponduteko teilatua zaharbarritu eben lehenengotik. Argiak be aldatu ditue "konsumo bajukoak ipinteko, organoa zabarbarritu, bentana batzuk aldatu egin genduzan, atek be konpondu eta gero pentsau genduan sasoi zala, itoginen eraginez teilatuan eta hormetan igeltoa jausita egoana, ba hori zaharbarritu eta bide batez dana pintetako. Eta horregaitik animau gara orain bobeda eta pinturaren zaharbarritzeko lanak

egiten" azaldu deutso BEGITURI Jose Mari Kortazar abadeak.

Mezetarako kaperatxo

Katekesiko lokaletan kaperatxo bat egin eta bertan emoten dabe domeketako mezea. Hileta bat edo egon ezker, Elexabeitiko San Migelen egiten dabe. Han eleizea "apain-apain dago eta duintasunez egiteko" dino Kortazarrek.



ARRATIA

Xabier Pastor Igorrekoa, AUMeko Bardintasun Teknikari barria



Igorre, Lemoa, AUMeko presidentea, Zeanuri eta Areatzako alkateak.

Erredakzioa

Urri lehenengoaren 30a izan zan Miren Urresti Arratiako Udalen Mankomunitateko (AUM) Bardintasun Teknikariaren atzen lan eguna Arratian. Egun horretan Arratiako Andren Jabekuntza Eskolearen aurkezpen jaia egin zan Areatzan, agur ezin hobea Urrestirentzat. Aurreko astean beragaz behar egin eta gero, Xabier Pastor Igorrekoa jarraituko dau andra eta gizonen bardintasunerako beharrean.

Jai giroan egin zan Jabekuntza Eskolearen aurkezpena, baina bardintasunaren aldeko konpromiso politikoa be hartu eben eskualdeko erakundeak. Izan be, Arratiako andra alkarte eta talde feministakaz, udalak eta mankomunitadeak Jabekuntza Eskolearen ibilbidea

bermatzeko konpromisoa sinatu eben. "Arratiako Andren Jabekuntza Eskolaren aldeko konpromisoa gizarteratu gura dogu, eta horretarako, urtero, honakoak gauzatuko doguz: udalak baliabide ekonomikoak, mankomunitadeak baliabide teknikoak eta taldeak parte hartu eta eskola bultzatuko dabe, danon artean, Eskolaren ibilbidea bermatzeko" dino sinatutako dokumentuak. Kopromisoa, Arratiako andra alkarte eta talde feministak, Arantzazu, Areatza, Artea, Bedia, Dima, Igorre, Lemoa eta Zeanuriko udalak eta Arratiako Udalen Mankomunitateak sinatu eben.

Aurretik, antzerkiaren bitartez, jabekuntza landuten dauan taldeak, andren oinarritzko aldarrikapenak antzestu ebazan; Areatzako Foroko andrak, poema bi eta Maitena

Monroyk 2009ko Granadako Jardunaldi Feministetarako idatzitako testua irakurri eben, eta Dimako jantza taldeak euskal jantza barritzaile eta feministak jantzatu ebazan. Sinaduraren ostean, Arratiako feministen "himno edo ereserki" bihurtu dan Uxue Alberdiren "Konplize ditut" koplak kantau ebazan bertaraturakoak.

Xabier Pastor Garay

Urri bigarreneko hasikeratik Xabier Pastor Garay da AUMeko Bardintasun Teknikaria. 27 urteko igorretar honek Lehen Hezkuntzan gradua, pedagogia terapeutikoan aitamena eta andra eta gizonen bardintasunerako masterra daukaz. Masterteko praktikak, Mankomunitadean bertan egin ebazan, aurreko Bardintasun Teknikariagaz. Beraz oso ondo ezetuten dau, Arratiako errealidadea eta arlo honetan egindako lana.

"Momentuz Mirenek martxan euki dauzan lan ildoak, programak, kanpainak eta abar, aurrera eroango dodaz. Orain hasi nazenez, lehenengo, orain arte egindako lan guztiak aztertu gura dodaz. Eta guztia kontrolpean daukadanean, berak egindako guztiagaz jarraitu eta beharizan barriari erantzuna emotea izango da nire lan nagusia, beti be herrietako udal eta herritarrakaz hartu-emonetan egonda" dino Xabier Pastor Bardintasun Teknikaria.

ARRATIA

Komunitade mailan koordinazioa bultzatu gura dau AUMeko adikzioen prebentzio zerbitzuak

Erredakzioa

Arratiako Udalen Mankomunitateko Adikzioen Prebentzio Komunitario Zerbitzuak, lehen, Drogomenpekotasunen Prebentzio Komunitario Zerbitzua, adikzioen aurrean babes-faktoreak bultzatzeko eta jarkera eta ohitura osasungarriak sustatzeko egiten dau behar eskola, familia eta komunitadeagaz. Komunitade eremuan koordinazioa sortutea dala oraingo erronka nagusia dino Alaia Ozerinjuregi Adikzioen Prebentzio Komunitario Teknikariak.

Hori dala eta, Arratiako udalak eta alkarte eragileakaz koordinazioa sortu gura dau Ozerinjuregik. Koordinazio hori beharrezkoa da ekintzak sor-



Mankomunitadea.

tzeako eta kanpainak egiteko.

Zerbitzuak ume eta gazteai, hezkuntza ez formalean baliabide osasuntsuak eskeintzen deutsez; gizarte eragileai aholkularitza eta trebakuntzea, eta udaletako

departamentu eta alkarteai be laguntza eta aholkularitza. Esku hartze zerbitzuak behar diranean, horreen inguruko informazioa be emoten dau AUMeko adikzioen prebentzio zerbitzuak.

Eskolan eta familiakaz

Eskola eremuan, trebakuntza emoten deutse ikasleai. Afektibidadea eta sexualidadea landuten dabe, baloreak, adikzioen inguruko prebentzio tailerrak emon, eta abar. Irakasleai laguntza, aholkularitza tekniko eta trebakuntza be eskeintzen deutsez.

Familia eremuan, Guraso eskolak sortu ditue orientazioa eta baliabideak eskeintzeko. Tresna eta ekintza guztien barri emoteko, aldizkari eta sare sozialak erabilten dituela dino Ozerinjuregik.

DIMA

Gure Esku Dago antolatutako galdeketarako motorrak berotzen



Gure Esku Dago (GED) erabakitze eskubidearen aldeko dinamikearen barruan, herri galdeketea egingo dabe Diman zemendiaren 27an. Galdeketeari testuingurua emoteko eta jentea parte hartzeako animetako ekitaldi bi antolatu dabez Alkarregaz Gure Esku Dimako taldekoak. Lehenengoa urri bigarrenaren 23an izango da, 13:00etan, herriko plazan, eta bertan, Diman, demokrazia sasoian zinegotzi eta alkate izandakoak hartuko dabe parte.

Erredakzioa

Ekitaldian, oraingo alkatea dan Nekane Intxaurtzak eta Josune Gorospe Eusko Jaurlaritzako le-

gebiltzarkide dimoztarrak testu bana irakurriko dabe. Ekimen hau, GEDren ekimenaren babespean egiten dan galdeketa aurreko atxikimenduakaz lotzean da. "Eki-



taldiak herrira begira dira. Hilaren 23ko ekitaldia da herriak ikusi dagian ze historia daukagun Diman, eta gure politika arduradunak izan diranak eta oraingoak, galdeketea bultzatzen dabela erakusteko" azaldu deutso BEGITUri Itziar Esparta Dimako Alkarregaz Gure Esku taldekoak. Ekitaldiaren ondoren, pintxoak, bertsoak eta jaialdia egongo dira.

Zemendian, barriz erabakitze eskubidearen gaineko eztabaidea antolatuko dabe Diman, gai honetan adituak diranen parte hartzeagaz.

Herri galdeketa zemendiaren 27an

2013ko bagilaren 8an Gure Esku Dago dinamika sortu eben, eta erabakitze eskubidea aldarrikatzeko giza kate bat osatu eben 2014ko bagilaren 8an. Gero, herrietan Euskal Herriaren estatus politikoaren gaineko galdeketa egiten hasi ziran. Arratian, galdeketea egingo dauan lehenengo herria Dima izango da. Aukera hori galdu ezin dalakoan, antolatuzaileak herritarrek parte hartzea animau gura dabez. "Arratiako beste herriak guri begira dagoz. Diman egiten danaz baliatu gura dabe euren herrietan eta euren jentearengana heltzeako. Zer gertatuko ete dan etxoten dagoz. Eredu izango gara, guk egiten dogunaren arabera, beste herriak ebatzi batzuk edo beste batzuk hartuko ditue. Orduan, erantzukizun handia da baina ezin dogu hori pasetan itxi" dino Espartak.

Diman, saretze sistema bat antolatu dabe jentea inpliketako. Bakotzak lagun bi inpliketan saiatuko da eta honeek biak beste bina. "Bai edo ez, edo dana dalakoa, galde-reari ze erantzun emoten jakon inporta barik, egun horretan parte hartzea ahalik eta handiena izan behar da. Horretarako herrikide gehienengana heldu eta zer egiten gabizen esan behar deutsegu".

Zemendiaren 27ko herri galdeketa, urri lehenengoaren 25eko Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetako parte hartzea (% 76) bardindutea gura dabe antolatzaileak.

Arratia Gure Esku

Arratia mailan be antolatuta dago Gure Esku Dago dinamikea. Herri bakotzak bere taldea dauka baina herriko ordezkariak Arratia Gure Esku izeneko taldean batzean dira, egiten danaren barri alkarreari emoteko eta alkarlana eta koordinazioa bermatzeko.

ARRATIA

Ongi Etorri Errefuxiatuak Arratiak plataforman parte hartzeako deialdia egin dau

Erredakzioa

Ongi Etorri Errefuxiatuak (OEE) Arratia plataformak, jatorrizko herrietatik alde egitera behartutako jentartearen eskubideak defendatzea dauka helburu nagusizat. Arratiako herri guztietan dagoz antolatuta, asanblada irekietan biltzean dira, eta honeetan parte hartze konbidau gura dabez arratiar guztiak. Hurrengo asanbladea urri bigarrenaren 19an izango da 19:30ean, Igoerreko Kultur Etxean.

OEEK, errefujiaduen Nazioarteko Legerian onartzen diran eta beteten ez diran eskubideak betetea exijiduten deutsez gobernuai.

Arratia babes herria

OEE Arratiak, Arratia babes herria izatea gura dau. Hori dala eta, urtailaren 15erako ekintza simbolikoa antolatuten dabiz. "Gure bailara ezinbesteko babes herri gisa izentatuko dauan ekintza simbolikoa izango da, eta hau gogo edo borondate orokor bat dala adierazoteko instituzionen, eragile kulturalen, kirol taldeen eta abarren inplikazioa bultzatuko dogu" azaldu deutse BEGITUri.

Aurretik, abenduaren 18an,

errefujiaduen oinarizko beharrezan asetzeko dirua biltzeako, bigarren eskuko azokea egongo da Areatzan.

Basakeria edo zibilizazioaren arteko hautua

Plataformakoak, errefujiaduen eta migratzaileen bizitza erasotzen dauan oinarizko arau juridikoen bortxa sistematikoari egiten deutse aurre. "Jente honen egunerokotasuna dramatiko eta bildurgarria da. Egoera hau film baten ikusiko bagendu guztiz izututa egongo ginatke, baina zoritzarrez, hau guztiau benebenetan eta gure begien aurrean gertatzen da" dinoe. Horregaitik, "gobernuak egin edo egiten ez dabenaren konplize" ez izateko gizarte zibileko eragile eta norbanakoak mobilizatzea deitzean dabez.

Nazioarteko Legeria sistematikoki ez betetea larria da eta Sami Na'ir filosofo eta soziologo argeliarraren berbak ekarri ditu gogora OEE Arratiak: "helburua ez da arazo humanitario koiuntural bat konpontzea, baizik eta erabaki sendoen bidez bide desbardinaren artean aukeratzea: basakeriaren bidea edo zibilizazioarena".



IGORRE

Gazte kuadrilen eguna ospatuko dabe Igorren hilaren 29an

Erredakzioa

Maratu Igorreko Gazteria Zerbitzuak eta Igorreko Gazte kuadrilak, Kuadrilen Eguna antolatu dabe urri bigarrenaren 29rako. Kuadrilen argazkian 12:30ean, ostean landa erreta txapelketan, 14:30ean bazkarian eskolako aterpean eta arrastian poteo musikatuan hartuko dabe parte 18 eta 30 urte bitarteko gazte kuadrilak.

Jai honek helburu bikotxa dauka. "Asmo ludikotik aparte, helburu nagusia Igorreko gazteen harreman sarea indartutea da, baita urtean zehar egingo doguzan ekintzen hasikerako jai" azaldu deutso BEGITUri Illart Gumuzio Maratukoak.

Kuadrilen eguneko ekintzetan parte hartzeako ez da izenik emon behar. Bazkarirako, barriz, tiketa erosi behar da.

JOSE SAGARNA URIARTE

80 urte fusilau ebela Jose Sagarna Uriarte abadea

Datorren egunean, 2016ko urri bigarrenak 20, laurogei urte beteko dira Markina-Xemeingo Amalloa auzoko abade gaztea, Zeanuriko seme Jose Sagarna Uriarte erail ebenetik. Inkisizinoaren sasoian legez, jente askok aprobetxau eban 1936ko gerra egoera mendeku personalak hartzeako. Datu guztien arabera hauxe izan zan be Jose Sagarnaren kasua: jauntxo auzotar batek jarritako salaketa faltsu bategaitik fusilau eben militar frankistak. Domekan, hilak 23, gogoratuko dabe Zeanurin, bera bateatu eta abadetu zan parrokian, meza bategaz.

Jose Mari Kortazar**Koadro profetikoa**

Zeanuriko sakristinian dagoan koadro baten, Pedro Atutxak holan azaltzen dau kasua labur-labur: "Jose Sagarna Uriarte, Zeanuriko "sastrena" deritxon etxean otsailaren 4ean, 1910ean jaioa. Felix eta Enkarnaren semea. Urribigarrena edo urriaren 20ean. 1936.ean fusilatua izan zan "Larroskain" Markinako auzunean abade egoala. Frankotarrek hil eben. Eleiztar baten eritziz onegia zalako eta abade hil zan". Koadro hori profetikoa izan da benetan. Sasoi ilun eta baltz haretan, herri adiskidetu eta baketu baten aldeko oihu bihurtu da horman eskegitako koadro ha. Bertan dira Zeanuriko zortzi eleiz-gizon, gerran eraildakoak: zazpi erreplubikazaleak hilda eta bat, Jose Sagarna Uriarte, frankistak. Bertan dira Zeanuriko parrokoa izanik herriko plazan bertan hil eben Benito Atutxa Agirrelezeaga, 1937.eko apirilaren 7an, eta Bizente Ocerinjuregui Uriá, egun berean, praile frantziskotarra, Zeanuriko bazterren baten milizianoak hil eben frailea zala-eta. Bere gorpua oindino ez da aurkitu eta une egokia litzateke hau, baten batek ezer baleki hau argituteko.

Hamar seme-alabetatik bera eta beste anai bat sartu ziran abade. 1911ko zemendiaren 15ean jaio zan (datu hau oker dakar Don Pedro Atutxaren koadroak)

eta hurrengo egunean bateatu eben. Bere ikasketak bete eta gero 1935eko bagilaren 28an abadetu eben, eta egun horretan bertan jaso eban Amalloako San Inazio eleizako eta bere 249 biztanleen ardura pastoralara. Meza barria be ez zan izan edozelangukoa. Egunean bertan sei zeanuriztar abadetu ziran-eta. Holan kontetan dau egun ha Jon Uru-txurtu historialariak: "Andra Mari eleizea gainezka egon ei zan, 2.500 lagun inguruk beteta, eta ospakizunean gotzain bik hartu eben parte: Mateo Mujikak, Gasteizeko gotzainak eta Eugenio Artaraz igorretarrak, Bach Nihineko (Indotxina) gotzainak. Eleizkizuna amaitu ondoren, eleizearen aurrean herriko jantzari gazteak jantzatu eben eta "Basarri" eta Uriarteren bertsoak entzuteko aukerea izan zan".

Abade urteak eta heriotzea

Don Josek ia urtebete egin eban Amalloa auzoan abade. Goizero mezea ospatu eta arrastian katekesia emon, hori izaten zan bere bizimodua; hortik aparte idatzi eta irakurten pasetan ei eban eguna, auzotarren esanetan. Dannon lagun modura gogoratzen dabe, mutil apala eta ona. Gainera, askotan joaten zan baserrietara gaixoak eta zaharrak bisitetan. Amalloaztar guztiak asko maitatu izan eben Sagarna, herriko jauntxo batek izan ezik.

1936.eko bagilean Berritu-

2015eko abenduaren

29an hartu eben lur

Zeanuriko kanposantuan

bere gorpuzkinak



Jose Sagarnaren erretratua.

ra abade joateko agindua jaso eban. Berehala hasi eben gerra golpistak. Iges egiteko ahalegina be egin eban, baina atzenean bertan geratzeko konbenzidu eben, berak ezer txarrik ez ebal egin-eta. Hobeto egongo zalakoan, baketan, Amalloara itzuli zan. Aukera txarra eta okerra. Bertan atxilo hartu eben, eleizan errezatzen egoala, atea zarratu eta leihopean soldadu bi itxita. Handik baserri batera preso, eta ezelango epaiketa barik, astelehen goizaldean, hilak 20, fusilatuzera atera eben. Jose Sagarna golpisten kapeilauagaz konfesau zan, eta gauza personal batzuk familiari eroatea eskatu eutsan. Gainera, Larruskaingo eleizara begira hiltzea eskatu eban. Horregaitik, Amulategi ondoko zelai batera jaitsi eben atzera; orduan pinurik ez egoan eta eleizea ikusten zan bertatik. Salaketea herriko jauntxoak jarri ei eban militarren aurrean. 24 urte zituan hil eben. Gorpua burdi baten kargau eta Larruskaingo kanposantuan lurperatu eben.

Herri jakituria

Amalloako Amulategi baserrikoak fusilamentua ikusi eben. Tokian bertan estaka bat ipini eben, lekua gogoratzeko. Urtetan. Geroztik, herriak agoz esaterik ez eukana, legenda eta ohituraz azaltzen eban. Hil eben lekutik hamabost metrora sagar arbola batek, pentsau barik be, ekaitz gogorak bota, eta hurrengo egunean zutik eta bizirik iraun.

Amalloako Amulategi baserri ondoan sagarrondo handi bat egoan. 1.958 urteko bagilako ostegun batez, ekaitz batek arbola zaharra bota egin eban, baina sustrairen bat lur barruan, eta bizirik gelditu zan zugatza. Zemendiaren 13an baina, eguen gau batez, zohia bere lekuan sartu eta biharamonean barriro tente aurkitu eben sagarrondoa. Inork ezin azaldu zelan gertatu zan. D. Jose Sagarna hil eben lekutik 15 metro eskasera egoan sagar arbola hori.

Barri harrigarria laster zabaldu zan eskualdean eta hurrengo zapatuan hainbat jente, Ondarroatik eta batez be, hurreratu zan leku haretara notizia egiaztatzera. Hainbeste zurrumuru be zabaldu zan. D. Joserren odola jausi zan lurrean ez zala gehiago bedarrik hazi... sagarrondoak sagarrak emoten zituala sasotik kanpo (zemendian)... D. Joserren gorpua usteldu barik egoala... Kontua da, D. Joserren gomuta biztu egin zala eta zugatzarena abertzaleen aldeko ezaugarri miragarritzat hartu ebala jentek.

Jentea erromes joian arbola gurtzera eta Don Joserren heriotzea gogoratzera. Markinatik guardia zibilak hori debekatzera joiazan, isunak jartzen, eta abar. Aginteak isildu gura ebana, herriak memorian gorde!

Zeanuriko kanposantuan atsedean

Fidel Sagarna, Don Joserren anaia abadea, 1952garren urtean Ama-

Iloara joan zan haren gorpuzkinak Zeanurira eroateko asmotan. Auzotarrak hainbeste maite ebela ikusita baina, bertan hobe egozala pentsau eban.

2015eko abenduaren 29an hartu eben lur Zeanuriko kanposantuan bere gorpuzkinak orain arte egozan kanposantutik ekarrita. Familia arteko ekitaldi apala bezain sentibera izan zan. Aspaldiko asmoa atzo gauzatu zan. Familiakoen artean hartu dau betiko atsedena Jose Sagarna Uriarte abadearen gorpua. Lur emon aurretik, otoitzaldi bat zuzendu eban Ander Manterola Zeanuriko seme eta abadeak.

Holan esan eban: "Bere etxean dago Jose Sagarna abadea. Zeanuriko parrokian bateatua, dotrina hartua, abadetua... Zeanuriko kanposantua izango dau etxea. Baina batez be Jainko Aitaren etxea, bateo ezkerotik bere semea izan zana".

Jose Sagarna ez zan izan gerran hil eben euskal eleiz-gizon bakarra. Bera eta beste asko gogortuak izan ziran Bituriekko Katedralean egin jakien hileta kolektiboan. *Consejos de guerra contra el Clero vasco. La Iglesia vasca vencida* Anxo Ferreiroren lana argigarria dogu honetan, oraintsu agertua. Aurretiaz lan handia egin eban



Zeanuriko kanposantura ekarri dabez Jose Sagarnaren gorpuzkinak.

Euzko apaiz taldeak, diktaduraren urte tristeetan datu zehatz asko batu eta argitara emonaz.

Frankismoko biktimen kereilea
Maria Servini epaile argentinarrak

eskatuta hartu eutsan deklarazioa, urri lehenengoan, Jose Sagarna Uriarte apaizaren loba dan Jose Sagarna Ocerin-Jauregiri Gernika-Lumoko epaitegian. Frankismoaren krimenen aurkako Argentinako kereila zuzentzen dauan Maria Servini epaileak maiatzean egin eutsan Gernikako epaitegiari deklarazio hori hartzeko eskaerea. Holan, Sagarna Ocerin-Jauregik bere osabearen hilketea salatu eban, epailearen aurrean.

Domekan Mezea

Sagarnaren Familiak eskatuta, datorren domekan, urri bigarrenaren 23an, Zeanuriko parrokian mezatan Don Jose gogoratuko da eta bere alde otoitz egingo da. Gogoan izango dira, aldi berean, gerrako biktima guztiak. Loba batek esaten dauanez "hau ez dogu gorrotoz eta bengantzaz egin gura, duintasunez agurtzeko osabea eta bakebidean aurrera egin daigun herri osoak".

✠

<p>AGIÑE'TAR ELADI AÑIBAÑO'TAR JON ATUTXA'TAR LEONARDO</p>	<p>ETXEZARAGA'TAR JOSEBA GUISASOLA'TAR MAXIMO ETA SAGARNA'TAR JOSEBA'K</p>
---	---

"Andra-Mari"-eritxadonan Jauna'ri lenengoz eskeñi
geuntson Opari Deuna'ren
GOMUTAKIJA

Txonitza: Muxika eta Ulfestarazu taf Malco
gure Gotzain afgi-agufgafijak.

*"Jauna, efukiz begiratu guri, gure, guraso,
senide, aizkidi, efkide ta Eñijari*

1935'ko Bagilaren 28'an Zeanuri'n (JOSU-BIOTZA'REN EGUNIAN)

Danon lagunen modura
gogoratzen dabe, mutil
apala eta ona

Bizkaia bertsozari txapelketa 2016

#bbt16 Kanporaketa

IGORRE

Lasarte aretoan

Urriaren 23an, 17:30ean

Arkatz Zipitria Mendizabal, Beñat Ugartebea Ostolaza, Itzi Iturriotz Zuluaga, Julen Enezuma Arzanezi, Malen Amenabar Larrañaga, Paule Iciar Loizaga Legarra

Ga-jartzailea Begofie Olabarria Astobiza

www.bertsotzale.eus/bizkaia/txapelketa


MENDI MARTXEA

Dimako Zizetan Mendi
Martxea hilaren 22an

2016

non: Dimako frontoi txikian
noz: urriaren 22an
ordua: 8:00Izen emotea: aurretik: 8 euro
egunean: 10 euro

IBAN: ES71 2095-0154-50-9111708612



Erredakzioa

X. Zizetan Mendi Martxea hilaren 22an izango da. Igazko moduan ibilbide bi izango dira aukeran: luzea eta laburra. Partaideak goizeko 08:00retan urtengo dira Dimako plazatik. Ibilbide luzeak 28 km. ditu eta laburrak 17 km.

Ibilbide luzea aukeratuten dabenak plazatik urten eta Biterino, Bikarregi, Artaun, Belatxikieta,

Mugarrekolanda, Baltzola, Indusi eta Bargondiatik pasauko dira. Laburra egiten dabenak, barriz, ibilbide bardina egingo dabe Belatxikietaraino eta gero, Artaunera joko dabe eta Bikarregitik pasauta, plazan amaituko dabe ibilaldia.

Izena aurretik emon daiteke 8 euro pagauta kontu zenbaki honetan ES 71 2095 0154 50 9111708612, edo egunean bertan urten aurretik 10 euroko prezioan.

AZKOREA

Urrezko Aizkolari
Txapeldunen Ligan
Atutxa txapeldunorde

Erredakzioa

Iker Vicentek (26'31''), irabazi eban Urrezko Aizkolari Txapeldunen Liga. Finala urri bigarrenaren 12an jokatu zan Basaurin. Otsagabiakoaren ostean, Aitzol Atutxa (27'43'') bigarrena izan zan, hirugarren Iñaki Azurmendik (29'43'') egin eban

eta laugarren eta atzena, Donato Larretxea (31'04'') izan zan.

Euskal Herriko Lehen Mailako Aizkora Txapelketako finala

Sei aizkolari neurtuko dira urri bigarrenaren 23an Bilbon, 12:00etan, Miribillako Bizkaia



Aitzol Atutxa.

frontoian jokatuko dan finalean: Aitzol Atutxa, Iker Vicente, Mikel Larrañaga, Joseba Otaegi, Juan Jose Lopez eta Ugaitz Mugerza.

BOLA JOKOA

Ipiñaburu-Undurraga txapeldun Zeanurin
jokatutako Kofradien arteko Bola Txapelketan

Kepa Atutxa, Kiloterdi Txokoko jabea, saria emoten laukote irabazleari.

Jon Urutxurtu

Ipiñaburu-Undurragak irabazi eban urri bigarrenaren 2an Alzustako

bolalekuan jokatuko zan Zeanuriko Kofradien arteko Bola Txapelketan. Udallerria osatzen daben zazpi kofradietako ordezkariak hartu eban

parte taldeka jokatuko zan txapelketan: Alzuak, Alzustak, Asterriak, Iburguenek, Ipiñaburu-Undurragak, Otzerinmendik eta Uribek.

Lehenengo tokia, Ipiñaburu-Undurragak eskuratu eban, baina horretarako "gerrea" jokatu behar izan eban Alzuaen aurka, talde biak bardindu ebelako 18 txirlo botata. Bigarren tokian Alzua sailkatu zan eta hirugarrenean Alzustak.

Laukote irabazlea honako honetara osatu eban: Iñaki Izak, Eusebio Larrazabalek, Ibon Sagastizabalek eta Asier Artarazek. Eskuratu eban saria 120 euro eta afora Kiloterdi Txokoa, Ellauri hotelaren jatetxean izan zan.

Sari berezia emon jakien txapelketako bi bolari gazteenai: 13 urteko Danel Beitiari (Otzerinmendik) eta 14 urteko Aitor Zuluagari (Uribe).

Arratia
Ubide eta zeberiko
euskerea
eta kulturearen alde

Hamabostero
begitu zeure etxean

Egin zaitez zeu be

Hamabostean behin sari itzelen zozketan parte hartuko dozu.

Eltxean jasoko dozuz Zertu Kultur Elkarteak ateratako produktuak.

lizen-abizenak:
helbidea:
herria:
Telefonoa:
E-posta:
Urteko kuota aukeratu: 35€ 55€ 75€

Zertu Kultur Elkarteak
Berrito Plaza 21, 20112 Artea

begitu

ESKU PELOTEA

Beñat Mendia bigarrenenez Bizkaiko txapeldun

Irati Urien

Bizkaiko Kluben arteko Txapelketea irabazi dau Beñat Mendia Linazak. Sopelanako Kurene Klubeko Inhar Ugarteren kontra lehiatu zan zeanuriztarra hilaren 6an Gordexolan jokatu zan finalean. 22 urte azpikoen kategorian igaz, Lehen Mailan aurten, bigarrenenez lortu dau Zeanurikoak Bizkaiko txapeldunaren postua 22-18 emoitzeagaz. Irabazlearen esanetan errez hasi eban partida baina eskua mindu eta 18 tanturaino hurreratu jakon aurkaria, "justo modu" irabazi ei eban arren garaipenagaz pozik agertu jako Joko Alaiako Mendia BEGITU-ri. Aitatutekoa da aurten Lehen Mailan garaipena lortuteagaitik datorren urtean Elite Mailan jokatuteko plazea daukala.

Eskuari errekerperetako astirik



Beñat Mendia.

emon barik ia ekin deutso Beñat Mendiak bikotekako Bizkaiko Kluben arteko Txapelketeari orain. Endika Garcia lemoaztarra lagun, Lemoako Kluba ordezkaturako dau Zeanuriko aurrelari gazteak, Elite Mailan.

FUTBOLA

Arratia bigarren postuan

Erredakzioa

Arratia taldeko gizonetzkoak bigarren postuan dagoz liderragaz bardinduta ligako bost partidu jokatu eta gero. Igaz maila galdu eta gero, ondo hasi dabe denporaldia arratiarrak. Hilaren 15ean jokatutako atzen partiduan Arratiak hiruna bardindu eban Indautxu taldearen kontra. Hurrengo partidua Igorren jokatuko dabe Galea A taldearen kontra hilaren 22an.

Neskak taularen atzekaldean

Andrazkoen taldea 12. postuan dago 6 puntugaz jokatutako 7 partiduetatik 2 irabazi eta gero. Atzen partidua Igorren jokatu eben hilaren 16an Marinoren kontra. Huts eta bi irabazi eban kanpoko taldeak. Hurrengo partidua San Ignacio taldearen kontra jokatuko dau etxetik kanpo hileko atzen asteburuan.

RAIDA

Arratia Raid eta Orientazio martxea Areatzan



Erredakzioa

Arratia Raid eta Areatzako Lamino Mendi Taldeak antolatuta, V. Arratia Raid jokatuko da urri bigarrenaren 22an Areatzan. Iparraldeko Ligako zazpigarren proba da Areatzako. Ligea zortzi probak osotuten dabe.

Arratia Raid goizeko 10:00etan hasiko da eta 7 orduko iraupena izango dau. Partaideak bikoteka lehiatuko dira. Bikoteak andrazkoak edo gizonetzkoak osotuta, eta mistoak izan daitezke. Bezperan, 20:00etan hasiko da taldeen harreara. Aiko hemen ordutegia:

07:30etik 08:30era, taldeen harreara eta dorsalak banandu. Bizikletak eta 1-2 transiziorako boltsak bildu.

08:30ean, Pagomakurrera igoera autobusez.

09:30ean, batzar teknikoa (*briefing-a*).

10:00etan, Raidaren hasikerea.

17:00etan, Raidaren amaierera.

17:30ean, bazkaria herriko plazan.

18:00etan, V. Arratia Raidaren sari banaketea eta partaide guztientzako opari zozketea.

Familiantzako orientazio martxea

Hurrengo egunean, domekaz, Euskal Mendizale Federazioak (EMF) Lamino Mendi taldeagaz orientazio martxea antolatu dau. Luzera bi egongo dira aukeran. Luzeak 17 km. izango ditu, gitxi gorabehera 5 ordutan egiteko modukoa, eta laburrak, bederatzi-hamar kilometro izango ditu, "familiar eta umeakaz egiteko aproposa" Lamino Mendi Taldekoen arabera.

Orientazio martxako taldeen harreara 08:30ean izango da Pagomakurren. Ordu bete beranduago, 09:30ean, batzar teknikoa edo *briefing-a*. Proba 10:00etan hasi eta 15:00etan amaituko da. Ondoren, partaide guztientzako parrilladea egongo da eta opari zozketea.

TXIRRINDULARITZEA

Arratiako III. Andren Martxa Zikloturistan partaidetza txikia egon da

Erredakzioa

Hilaren 15ean, Arratiako Andren Martxa Zikloturistarean hirugarren edizinoa izan zan. Ekimen honen helburua, andrak bizikletan ibilteko ohiturea hartzea edo mantendutea da.

Aurtengo edizinoan, hamabost txirrindularik hartu dabe parte, tartean lauzpabost ume. Lehenengo edizinoan 38 partaide egon ziran, bigarrenen 21 eta oraingo honetan 15 baino ez.

Aurreko urteetan legez, txirrindulariak 24 km. egin ebezan Arratiatik zehar. Igorreko Urbieta futbol zelai ondotik urten ziran ziklistak. Ibilbidea Igorretik Zeanuriraino eta bueltea

zan, Dimatik pasauta.

Igorreko andra bizikletazale bazuen ekimenez sortutako martxa

hau Igorreko Udalak antolatu dau eta Arratiako Ziklista Elkartek eta Berezi tabernak lagundu dabe.



Igorren batutakoak.

Orrebiako Urri Hestetxoan
Gure
irastetxeak
Euskalduna
kalidadezkoa
herrikoa

JB Eguzkiza Meabe HI
Tel.: 94 631 32 28 Lemoa

Ugarana HI
Tel.: 94 631 55 32 Dima

Zubialde HI
Tel.: 94 648 06 82 Zeberio

Zeanuri HI
Tel.: 94 673 93 33 Zeanuri

Ikastola Arratia HI
Tel.: 94 673 90 65 Artea

Arratia BHI
Tel.: 94 673 62 37 Igorre

Areatzako Herri Eskola
Tel.: 94 673 90 93 Areatza

I. Zubizarreta HLHI
Tel.: 94 673 60 22 Igorre



KULTUR ASTEA

Lehengo bizimodua
gomutauko dabe Arteako
Jubiladuen astean

Kartela egitarauagaz.

Erredakzioa

Urri bigarrenaren 17tik 23ra arte, Arteako Udalak Jubilatuen astea antolatu dau. Artea zelangoa zan orain dala 70 urte erakusten dauan dokumentala, antxinako argazkiak eta bizimodu aldaketaren gaineko hausnarketea egiten dauan film bat ikusi ahal izango dira beste gauza batzuen artean. Baina batez be, erakusketan, zinean, belaualdien arteko topaketetan, txangoan eta bazkarian ondo pasetako aukerea izango dabe 65 urtetik gorakoak.

Arteako eraikuntza publikoetan Arratiako Tranbiaren argazkiak eta antxinakoak egongo dira ikusgai aste osoan. BEGITU argitaratzen dauan Zertu Kultur Elkarteak antolatutako eta igaz Arratiako hainbat herritan egon zan Arratiako Tranbiaren gaineko erakusketan egondako panelak be ikusi ahal izango dira.

Zineari jagokonean, zita bi dagoz. Lehenengoa, eguaztenean, hilak 19, izango da. Arrastiko 19:00etan ludotekan, *Amama* filma ikusteko aukerea dago. Asier

Altunaren filmak sari asko jaso ditu, tartean Euskal Zinemaren Irizar saria 2015eko Donostiako Zinemaldian. Pelikuleak belaualdia, uri eta herriko bizimodua eta iragana eta oraina bateratzeko zailtasuneg egiten dau berba.

Hurrengo egunean, Artearen iragana eta oraina erakusten dauan dokumentala eskeiniko dabe ludotekan, 19:00etan. *Artea atzo eta gaur* izeneko dokumentalean, Arteako zazpi herritarrek orain dala 70 urte Artea zelangoa zan kontetan dabe. Egun horretan bertan, hau da hilaren 20an, baina goizez, edadeko arteaztarrek eskolatik pasauko dira umeai euren esperientzia eta bizipenak kontetan. Barikuan barriz, hilak 21, herriko jubilatuen alkarteak Errioxako Briones herrira egingo dau txangoa.

Domekan, hilak 23, Jubilatuen Eguna ospatuko da: eguerdiko 12:30ean, bertsolariak egongo dira plazan; 14:30ean, herri bazkaria frontoian jubilatuen omenez eta bazkalostean, 17:00etatik aurrera, kantuak. Bazkarirako apuntetako udaletxean emon behar da izena hilaren 18a baino lehen.

ONDAREA

Migrazinoak itxitako
ondarea aztertuten
jarraituko dabe Arratian

Erredakzioa / Jon Urutxurtu



"Etiket kanpo, migrazinoak eta kultur ondarea" Ondarearen Europako Jardunaldietako gaiari lotuta, hiru ekitaldi eratu ziran gurean aurreko hamabostaldian. Bi Areatzan izan ziran, herriaren historia ezetuteko bisitaldi gidatuak eta Euskal Jaia; eta Zeanurin bat, San Justoko karobiari bisitea. Bigarren hamabostaldi honetan, barriz, lau jarduera egongo dira. Igorren izango da bat, Igorreko historian, jentearen mobimentuen garrantzia azalduko dau Angel Larreak. Besteak, barriz, Zeanurin. Holan, Barazarko zentral hidroelektrikoa bisitetako aukerea egongo da eta Zeanuriko gune monumental eta Ekuadorreko Los Rios misinora joandako abade zeanuriztarren barri jakitekoa be bai. Atzenik, Zeanuri eta Ubideren arteko Larreen zeharkaldia, Erdi Aroko bidetik ibilteko aukerea emongo dau.

Igorre

Igorreko historian murgilduko ditu Angel Larreak jarduera honetara hurreratzen diranak. Biztanleen mobimentuak udalerriarren sorreran eta toponimian izan daben eragina erakutsiko dau Historia irakasleak: Ameriketara eta Filipinetara joandako indianoak, Gerra Zibileko errefujiadu eta frankismoan erbesteratutakoak, eta industrializazioak erakarritako etorkinen barri emongo dau. Igorrera etorritako kanpo migrazinoaren eta migratzaile gazteen errealidadeak be aitatuco dira. Urri bigarrenaren 26an, 19:30ean izango da Kultur Etxean.

Zeanuri

Zeanuriko udalerririk lurpean ezkututzen dauan zentral hidroelektrikoa ezetutera emongo dabe hilaren 19an. Hitzordua goizeko 10:00etan herriko plazan da. Barazarko zentrala, Altos Hornos de Vizcaya enpreseari

zerbitzua emoteko sortu zan. 1948 eta 1950 bitartean eregi eben. Eraikuntza lanetarako estaduko hainbat lekutatik etorri ziran beharginak eta euren familiak. Bisitaldian, 12,5 km.ko tunela ikusteko aukerea egongo da.

Urri bigarrenaren 22an, 10:00etan herriko plazan batzuan diranak, Ekuadorreko Los Rios misinori buruzko gorabeherak ikasiko dabez. Misinora zortzi misinolari joan ziran 1948an eta hareetako bi Zeanurikoak ziran: Gisasola eta Ozerinjaregi. Misino horren iragana eta oraina azaltzeko, orain dala urte batzuk egin zan erakusketan erabilitako argibideak emoteko panelak erabiliko dira. Eta, han 7 urtez lan egin eban Jose Mari Kortazarrek, azalpenak emon eta gidari lanak egingo ditu. Jon Urutxurtu historialaria be egongo da gidari lanetan Elizondoko gune monumental ezetuten emoten, hain zuzen: Andra Mari parrokia eta erretaula, Piedade baseleizea eta Nestor Basterretxearen kurutzia.

Zeanuri-Ubide

Urri bigarrenaren 29an, zapatuan, egingo da Zeanuri-Ubide Larreen Mankomunitatearen X. Zeharkaldia. Ibilaldi hau Bizkaiko Foru Aldundiak bultzatutako Ondarea-

ren Europako Jardunaldien egitarauaren barruan dago. Aurtengo Jardunaldiak "Etiket kanpo" izenburupean antolatu dira; ibilbideak jardunaldien izenburuagaz lotura zuzena dauka, tarte batzutan, Bilbo eta Gasteiz lotzen ebazan errege bidea jarraitzen dualako, eta bidarri horretatik gora eta behera igarotzen ziran persona eta merkantzia ugari.

Zeharkaldi honen jatorria, orain dala gizaldi bat baino gehiagotik Zeanuriko eta Ubideko Udalak egiten daben batzurrean dago: urte baten udaletxe batean eta hurrengoan bestean biltzean dira, udalerririk bakotxean izena emondako abelburuen zenbakiak aurkezteko eta kontuak egiteko. Urtero errepikatzen dan ohitura eta betebeharra da. Atzen bederatzitean zeharkaldia amaitu ondoren, jarraian egiten izan dabe batzura udal bietako zinegotziak. Aurten, Ubideko Udalak batzura urri bigarrenaren 14ra aurreratzea ebatzi dau.

Ibilaldiak 12 km. ditu. Urteke-rea Zeanuriko plazan, udaletxearen aurrean, izango da goizeko 10:00etan. Plazatik abiatuz, par-taideak Undurragako urtegiaren ertzetik jarraituko dabe Ipiñabururantz zuzentzeko; hemendik Saldropora igo beharoko dabe. Jadanik Saldropoko zelaikadan, Lapursasitik Otzarretako pagadiaren ondotik igaro eta Ubiderantz joko dabe; azken txanpa honetan galtzadearen azarnak argi eta garbi azaltzen diran tarte batetik ibilteko aukerea izango dabe parte hartzaileak, azkenik Ubideko plazara heltzeako.



Urri bigarrenaren 29an izango da larreen zeharkaldia.

Beer & Edariak s.l.

HEINEKEN SOLARES

Feliz Mendizola, s/n 48500 LEZIOA, Biskaiak
Tel: 090 480 8300 eta 900 200 717

NAIARA HORTZ KLINIKA

Lehendakari Agirre, 19
48140 Igorde
94 631 52 26

MERKA LABELA-HARATEGIA

Etxeko produktuek

- Txerizotak
- Olotzotak
- Beshantzak
- Salfritzak
- Ranzburgesak

Arratiako produktuek

- Beserriko otzila
- Getziak
- Beserriko arrautzak
- Txerizotak
- Haritzotak
- Geroiko fruta eta herrixkiak

Herriko bisitazioak
Lehendakari Agirre 21
94 631 41 39

MUSIKEA

Igelaren Bandaren kontzertua Igorreko Kultur Etxean

Erredakzioa

Urri bigarrenaren 28an, arrastiko 20:00etan, Igelaren Bandak kontzertua eskeiniko dau Igorreko Kultur Etxeko Lasarte Aretoan.

Igelaren Banda ibilbide han-

diko musikariez osotuta dago. Gitarra jotzailea Bixente Martinez da, lehenago Oskorri eta Hiru Trukun jo izan dauana; baju eta kontrabaju jotzailea Amaïur Cajaville. Honek Benito Lertxundigaz, Aiko eta Mikel Markezegaz jo dau; Hasier Oleaga bateria joleak barriz, Ruper Ordorika eta Iñaki Salvadorregaz.

Taldeak euskal musika tradizionala hartzean dau abiapuntutzat, baina jazz inprobisazioaren eremura eroaten dau. Atzen diskoan, *Debaldeko festa*, bertsolariak erabilten dituen doinuak hartu ditue ardatz, historiak garatzeko aukerea emoten dabelako. Donostiako



Jazzaldian, Bilboko Loraldian eta beste hainbat jaialditan egon eta gero, Igorreko Lasarte Aretoan aurkeztuko dabe lana.

BERTSOLARITZEA

Mundu bat bertso liburua esku artean, berrehun ikaslek landuko dabe bertsolaritza Arratian

Erredakzioa

Zeanuri HLHI, Areatza HLHI, Arratia HLHI, Zubialde HLHI, Inazio Zubizarreta HLHI, Eguzkiza Meabe IPI dira "Gu ere bertsotan" proiektuan

parte hartuko dabenak. Bizkaiko Bertsotale Elkarteak aurrera da-roan egitasmo honetan, bertsolaritzeari buruzko oinarriko ezagutza bermatzeaz gainera, ikastetxean zein herrian bertsotaletasuna sustatzea dira helburu nagusiak. Ikasgelan egiten dan beharri ikasgelatik kanpo jarraipena emoten jako, gaztetxoan bat-bateko kantarako taldeak sortuz eta bertso eskolara hurbildu daitezcan zubi lana eginez.

Ahozkotasanaren bidez, lau arlo honeek landuten dira: hizkuntza, kultura, musika eta trebetasun personalak. Astero edo hamabostero, ordu batez, bertso jolas eta ikus-entzunezko baliabideak lagunduta, ikasturte osoan zehar, ekintza ugari egingo dira, besteak beste, eskolen arteko to-

paketak eta bertso kantaldiak.

DBHn be "Gu ere bertsotan"

Arratia BHlko eta JB Eguzkiza Meabeko ikasleak bertsolaritza landuko dabe. Igorren DBH 1 eta DBH 2 taldeetan emongo dira eskolak. Danera 40 ikasle dira bertsolaritzan izena emon dabena eta aurten kurso amaierarako ikasle honeen ardurea izango da Regueibertso proiektua lantzea eta igazkoari jarraipena emotea.

Lemoan DBH1en emongo da bertsolaritza. Kurso erdiko egitasmoa aurrera eroate adostu dabe ikastetxe zuzendaritzak eta Bizkaiko Bertsotale Elkarteak. Honez gain, eskolaz kanpoko ekintza be eskeiniko jakie Arratia osoko gazteai.

BIZKAIKO BERTSOLARI TXAPELKETA

Arratiar bi Bizkaiko Bertsolari Txapelketako udagoieneko fasean

Erredakzioa

Bizkaiko Bertsolari Txapelketako udagoieneko fasea martxan da. Lehenengo saioa Mungian izan zan urri bigarrenaren 15ean. Hirugarren kanporaketea Igorren izango da, hilaren 23an. Txapelketako fase honetan, udabarriko fasean sailkatutako bertsolariak neurtuko dira, tartean arratiar bi: Iñaki Iturriotz eta Igor Menika.

Udagoieneko fasea, 5 kanporaketak, hiru finalurrekok eta finalak osotuten dabe. Kanporaketa eta finalurrekoetan 6 bertsolari egongo dira saio bakotxean; finalen, barriz, zortzi.

Iñaki Iturriotzen txandea Igorreko Lasarte Aretoan izango da hilaren 23an, arrastiko 17:30ean. Beragaz, Arkaitz Zipitria, Beñat Ugartetxea, Julen Erezuma, Malen Amenabar eta Paule Ixiar Loizaga neurtuko dira.

Igor Menika Arantzazukoak bosgarren kanporaketan hartuko dau parte. Hau Zaldibarko Olazar frontoian jokatuko da. Beñat Romero, Beñat Vidal, Eneko Arrate, Nerea Ibarzabal eta Peio Ormazabal izango dira Igor Menikaren aurkariak.

Bost kanporaketa osotuteko beste saio bi dagoz. Bigarren kan-

poraketea hilaren 22an jokatuko da Sestaoko Musika Aretoan, eta laugarrena hilaren 29an Leioako Kultur Auditoriumean.

Finalurrekoak, zemendiaren 19an, 27an eta abenduaren 3an izango dira. Finala, barriz, Bilboko Bilbao Arenan jokatuko da abenduaren 17an.

Antolakuntzan be arratiarrak

Txapelketaren antolakuntzan jentek parte hartzean dau. Talde antolatzailean, esate baterako, Illart Gumuzio Igorrekoa dago eta komunikazio taldean, Iñaki Iturriotz.



DUNBA

Angel Sopeña aterpea

Zeanuriko eskolako 5. mailako ikasleak

Gorbeian, Arrabako landaren bazter baten, Bizkaiko Mendizale Federazioak Angel Sopeña izeneko aterpea dauka. Aterpe hau 1960ko maiatzaren 29an zabaldu zan. Egun horretan 3000 bat mendizale hurreratu ziran Arrabako landetara.

Aterpeari izena, Angel Sopeña mendizalearen omenez ipini eutsien, Gorbeia eta inguruko beste aterpeen sorreran egindako lan parebakoa eskertzeko.

Eraikuntzearen kokapena ez zan edozelan egin. Bertan dagozan haize gogorretik babesteko, Aldapeko pasabidera bidean dagoan muino baten azpian egin zan.

Aterpearen hogeigarren urteurrena ospatuteko, 1980. urtean, Arrabako sarreratik Aldapeko pasabidera doan bidearen

alde bietan arbolak landatu ziran. Arbola honek aterperaino be heltzean dira, eta behelainoa dagoan egunetan oso baliagarriak dira mendizaleak galdu ez daitezcan.

Gauza bitxi moduan esan daiteke, 1983 urteko uriola handietan, aterpearen aurrean laku bat sortu zala. Laku hau egindako euri jasa itzelen ondorioz sortu zan, eta bertako artzainik zaharrenak be ez eben holangorik gogoratzen.

1992an aterpea guztiz barritu zan eta gaur egun daukan itxurea hartu eban.

Gaur egun, aterpeak lo egiteko 24 personentzako lekua eskeintzen dau. Horretarako logela bi daukaz 10 eta 14 plazakoak. Horretaz gain, bertan armosua, bazkaria eta afaia egiteko aukerea dago. Bertan lo egiten ez daben mendizaleentzako taberna edo

jatetxe zerbitzua dago. Itzelezko plater gozoak edo bokadiloak jan leitezke bertan, kurutzetik, Itxinatik edo Gorbeia edozein txoko zoragarritik bueltan gatozala. Bertoko berezitasuna berakatz-zopea da.

Horretaz gain mendi gida zerbitzua be eskeintzen da aterpean, eta noski, larrialdiren bat egon ezker, aterpea da lehen erantzuna emoteko lekua.

Aterpe honetan arduradun desbardinak egon dira urteetan zehar. 2014ko abenduaren 5ean hasi ziran lanean gaur egun ardurari hori daukien Joseba eta Yoli. Bizkaiko Mendizale Federazioak egindako eskeintza publiko bateri erantzunez hasi eben euren ibilbidea Angel Sopeña aterpearen arduradun moduan. Izatez, basauritarrak diran arren Urduñan bizi dira, nahiz eta urteko zati han-



Zeanuriko 5. mailako ikasleak Gorbeian aterpean.

di bat Arraban emoten daben.

Euren esanetan, bertan denporaldi luzeak egitearen alderik onena parajea da. Txarrena aldiz, sarritan biziten dan bakardadea dala esaten dabe.

Aterpean lan egitearen zailtasunik handienak, neguan izaten dira, edurragaitik. Sarritan astebururako beharrezkoa dan guztia aldean ekarri behar dabe eta.

Aterpera, batez be, asteburuetan joaten da jente gehien. Munduko toki askotakoak joan izan diran arren, gehienak bizkaitarrak izaten dira.

AGENDEA

URRI BIGARRENAK 17
ARRATIA

Zemendiaren 9ra arte, Beldur Barik Lehiaketan ikusentzunezkoak aurkezteko epea zabalik.

Hilaren 30era arte, Lemoako Argazki Lehiaketan parte hartzeako epea zabalik.

16:30etik 19:30era, hilaren 21era arte, San Martin egunean (zemendiak 12) babak egiteko izena emoteko epea Bedia Liburutegian.

21era arte, Dimako Kalenturak Ipuin Erotikoen Lehiaketan parte hartzeako epea zabalik.

ARTEA

23ra arte, Arratiako Tranbia eta antxinako argazkien erakusketea eraikuntza publikoetan.

IGORRE

Astrapelea Rock Eskolak aurkezten dau txalaparta eta eskal perkusino ikastaroak. Izen emotea kaixo@astrapelea.com.

URRI BIGARRENAK 19
ARTEA

19:00etan, *Amama* filma ludotekan.

IGORRE

19:30ean, Ongi Etorri Errefuxiatuak Arratiaren asanbladea Kultur Etxean.

ZEANURI

10:00etan, Barazarko zentral hidroelektrikora bisita. Plazan.

URRI BIGARRENAK 20
ARTEA

10:30ean, belaunaldien arteko topaketak eskolan; 19:00etan, *Artea atzo eta gaur* dokumentala ludotekan.

DIMA

18:00etan, Gizonentzako Guneak "Tratu onak eta komunikazio ez bortitza". KZgunean.

URRI BIGARRENAK 21
ARRATIA

08:45ean Bilbotik urtetan dan autobusean, Gurutze Gorriak antolatuta jubiladu eta pensinodunentzako mendí ibilaldia. Makasti-Urrekoatxa-Ugarana. Igorreko autobus geralekuan.

ARTEA

08:30ean, Arteko Jubiladuen Elkartearen

txangoa Brionesera.

DIMA

"Dimako Kalenturak" Ipuin Erotikoen Lehiaketan parte hartzeako azken eguna.

IGORRE

22:00etan zinea, *Café Society*. Lasarte Aretoan.

ZEANURI

20:30ean, Berbalagunen arteko poteoaren lehenengo eguna. Frontoiko tabernan.

ZEBERIO

19:00etan, Austari Kultur Taldeak antolatuta, Patxin eta Potxin *Herriko jaiak*. Plazako ermitan.

URRI BIGARRENAK 22
AREATZA

20:00etan, Blue Grass Express-en kontzertua The Quiet Corner-en.

DIMA

08:00etan, Zizetan Mendi Martxea.

Andrazko izaten desikasteko
ikastaroa Artean

Arratiako Andren Jabekuntza Eskolako lehenengo ikastaroa, urri bigarrenaren 21ean eta 22an izango da, Arteko Kultur Etxean, Udalak antolatuta. Sei orduko ikastaro izango da, saio bitan bananduta. Barikuan 17:00etatik 20:00etara izango dira eskolak eta zapatuan 10:00etatik 13:00etara.

Bertan, Medeak taldeko Nagore Iturriozek "Zelan egiten gaitue andrazko?" itaunari erantzungo deuto. "Jaiotzeaz batera, andrazko egiteko makinaria martxan hasten da. Andrazko izateko eredu bakarra ei dago eta hara hurreratzeko presinoa dogu hasikeratik. Prozesua eta emoitza zen dan aztertuko dogu, eta, ondoren, ikasitakoa desikasteko gakoak emongo doguz, andra izateko era ugari dagozalako. Zenbat andra, horrenbeste era" dinoe Jabekuntza Eskolatik.

IGORRE

17:00etan, zinea *Mi amigo el gigante*. 19:30ean, zinea *Café Society*. Lasarte Aretoan.

LEMOA

Ganzabal Mendi Taldeak antolatutako umeen urtekerea. Narbaniz-Illuntzar (726 m.).

Jubiladuen Eguna. 12:00etan mezea; 14:00etan bazkaria kiroldegian. Bazkaloste musikatua Lemoako Korlagaz.

ZEANURI

10:00etan, "Zeanuritik mundura: Los Rios eleizbarutiko misinoak" ibilbide gidatua, Jon Uruburu eta Jose Mari Kortazarren eskutik. Plazan.

URRI BIGARRENAK 23
AREATZA

Gorbeia Parketxeak antolatuta, Parke Naturalaren aztarna arkeologiko batzuk ezetuteko ibilbide arkeologikoa, Arkeologi Museorearen

eskutik.

ARTEA

Jubiladuen Eguna. 12:30ean, bertsolariak plazan; 14:30ean, herri bazkaria jubiladuen omenez frontoian; 17:00etan, bazkalosteko kantuak.

ARRATIA

Arratia-Otxandio-Ubideko XVII. Mendizale Eguna Otxandion.

DIMA

13:00etan, GEDren ekitaldi instituzionala. Ondoren, pintxoak, bertsoak eta jaialdia.

IGORRE

17:30ean, Bizkaiko Bertsolari Txapelketako kanporaketea. Lasarte Aretoan.

URRI BIGARRENAK 24

LEMOA

Liburutegiaren Eguna.

URRI BIGARRENAK 25
ZEANURI

18:00etan, berbaldia "Eskola-jangelen kudeketa altematik: Gemikako esperientzia". Hizlariak: Vicky Aretxedarrera eta Dabib Zelaia, Gerniako Allende Salazar ikastetxeko gurasoak, eta Eneko Viñuela eta Lurdes Imaz, Gure platera, gure aukera ekimenekoak. Guraso Eskolak antolatuta.

ZEBERIO

Mus Txapelketan parte hartzeako izena emoteko atzen eguna. Taberna Zaharran, Herriko Tabernan edo Batzokian edo sanantoniojaiak@hotmail.com helbidean. Mus Txapelketea zemendiaren 6tik 27ra bitartean izango da.

URRI BIGARRENAK 26
IGORRE

19:30ean, Angel Larrearen berbaldia "Migrazinoak Igorreko kultura ondarean izan daben eragina". Lasarte Aretoan.

LEMOA

19:00etan, Jai Batzordeak jaien balorazioa egiteko batzarra udaletxean.

ZEANURI

17:30ean, sorgin jantzea eta lamineen jantzea ikasteko aukerea plazan. Eguzkiolak antolatuta.

URRI BIGARRENAK 27
ZEANURI

17:30ean, sorgin jantzea eta lamineen

jantzea ikasteko aukerea plazan. Eguzkiolak antolatuta.

18:00etan, Gizakia naturarekiko harremanetan eta bere erritmoak ikastaroa Graci Chaconen eskutik. Udaletxe azpian. Mazalak antolatuta.

URRI BIGARRENAK 28
BEDIA

17:30ean, "Sormening" familiagaz ludotekan.

IGORRE

20:00etan, Igelaren Bandaren kontzertua Kultur Etxean.

ZEANURI

18:30etik aurrera sorginkerik (jokoak, jantzak, antzerkia...); iluntzean, kobazuloan sartu-urtena; berakatz zopea eta jatekoa; DJ Sagu-Zar. Plazan. Eguzkiolak antolatuta.

URRI BIGARRENAK 29
IGORRE

Igorreko Jubiladuen alkarteak antolatuta, mendí urtekerea, Zeanuri-Barazar-Aretoan.

Kuadrilen Eguna. Maratu Igorreko Gazteria Zerbitzua eta kuadrilen artean antolatuta. 12:30ean kuadrilen argazkia, ostean zelai erre txapelketa mundiala. 14:30ean bazkaria eta arrastian rally poteo musikatua.

22:00etan, zinea *Al final del tunel*. Lasarte Aretoan.

ZEANURI

10:00etan, Zeanuri-Ubide Larreen zeharkaldia. Plazatik urtenda.

URRI BIGARRENAK 30
IGORRE

17:00etan, zinea *Mascotas*; 19:30ean, zinea *Al final del tunel*. Lasarte Aretoan.

LEMOA

Lemoako V. Argazki Lehiaketan parte hartzeako atzen eguna.

ZEBERIO

20:00etan, zinea *I shot Andy Warhol*. Eskola zaharrea.

ZEMENDIAK 1
ZEBERIO

12:00etatik 15:00etara, perrebiko erakusketea Plazako Eskola Zaharrea.

IRAGARKI LABURRAK

SALDU

PISUA SALGAI

Zeanurin, plazan, duplex-a salgai.

100m, 3 logela, komun 2, garajea eta trastelekua. Interesautu egon ezker, 686 495 724 telefonora deitu.

MAKINARIA SALGAI

Bedarra zabalduko eta batzeako makinak saltzean dodaz. Interesauak deitu telefono honetara 628 041 526.

KIROL MAKINEA SALGAI

BH Fitness Quick Easy Eliptic kirol makinea salgai. Telefonoa: 615 783 915.

KIROL MAKINEA SALGAI

Bizikleta estatikoa salgai. BH Fitness, Sprint Bike Three. Telefonoa: 649 979 115.

DANERIK
BAZKIDE BILA

Arratiako euskerazko aldizkariak bazkideak behar ditu. Interesauak 649 979 115 telefonora deitu.

GARRAIOLARIA BEHAR DA

Enkarguak etxera eroateko garraiolari

autonomia behar da. Deitu 94 673 60 55 telefonora.

ZERBITZARIAK BEHAR DIRA

Areartzako taberna batek zerbitzari bat behar dau jantokirako, eta beste bat tabernarako. Interesdunak 688 616 816 telefonora deitu.


Zeozer saldu, erosi, alokatu, trukea egin, behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat. begitu@topagunea.com-era. Mezuak doban dira.

Begitu-lagunen txokoa

Zenbaki honetako saridunak:

1 Igorreko Kultur Etxeak emondako bina sarrera Igelaren banda taldearen kontzerturako.

Iker Mendiola (Zeberio)
Ainara Olazabalaga (Bedia)



2 Bizkaiko Bertsozale Elkarteak emondako bina sarrera Bizkaiko Bertsolari Txapelketako Igorreko saiorako.

Bego Tabera (Artea)
Txaro Tornero (Dima)



Zerturen argitalpenak jasoko dozuz,

zozketetan

sartuko zara.

BEGITUK 14

urte eta

ehundaka

lagun.

DENPORA-PASA

IMAN OLATU

	1	2	3	4	5	6	7
1							
2							
3							
4							
5							
6							
7							
8							
9							

EZKERRETIK ESKOIERA

1.- Motel. Boroa. 2.- Oxigenoa. Zeozer sinisten ez dala adierazoteko erabiltzen da. Harridura adierazoten dau.
3.- Indioa. Atzamar. 4.- Zaborra.
5.- Apropos. Berrogeta hamar erromatar. 6.- Letra bat. Itsasaldia.
7.- (Atz.) Persona izenordaina. Momentu guztietan. 8.- Karrika.
Zinkaren sinboloa. 9.- Aragoiko ipar-mendebaleko harana. Txorrotxio, txio.

GOITIK BEHERA

1.- Helioa. Lursagarra. 2.- Mosua. Alkarrizketa. 3.- Kantsazino. Nora atzizkia. Bokala. 4.- Lora sorta.
5.- Oxigenoa. Musika nota. Apurtu.
6.- Arratiako herria. Ukatze.
7.- Iluntasun. Edabe garbi.

O	I	P	A	Z	O	6	K	N	X	V	V	T	O
N	Z	A	L	E	K	8	I	M	V	O	V	V	I
I	L	B	E	N	I	7	H	I	V	O	V	V	I
V	A	R	E	M	A	9	N	O	Z	I	A	I	O
L	O	A	K	E	S	5	I	R	O	V	O	V	I
Z	A	V	A	R	Z	4	V	O	V	O	V	V	I
Z	I	N	H	A	T	3	I	I	I	I	I	I	I
O	I	O	B	O	2	O	O	V	V	V	V	V	I
I	G	E	L	D	I	1	O	O	V	V	V	V	I
1	2	3	4	5	6	7	H	I	V	O	V	V	I

Topau sukaldaritzan erabiltzen diran zazpi osagairen izenak.

Z	A	R	T	A	K	I	N	E	A
O	K	A	R	E	N	U	R	E	M
M	I	Z	P	E	R	U	K	O	A
A	P	I	P	E	R	M	I	N	A
T	U	B	A	R	A	E	G	O	K
O	L	A	R	E	M	I	K	A	O
K	A	R	E	G	O	R	Z	E	T
O	D	E	K	A	R	T	U	B	A
S	O	L	U	B	A	R	R	I	Z
E	T	A	Z	K	O	B	A	R	E
B	O	R	A	N	I	P	Z	O	N
U	K	R	E	G	R	A	Z	E	P
L	E	G	A	R	O	B	A	M	I
B	P	E	R	E	J	I	L	A	N
O	L	A	G	A	K	O	N	E	R

AKIKI MIKO

Iman Olatu



umean moda
seim
0-16
Agirre Lehendakaria, 31 • 48140 IGORRE
Tfnos. 94 631 92 96 • seimoda@hotmail.com

AKESOLO, S.A.
GARRAIKAK, NEUMATIKOAK ETA ZERBITZUAK
Garbe, 29 Telefonos: 94 673 60 14 IGORRE-BIZKAIA

AKEITEGIA
GATV & LORA
IGORRE

Igorren
ARKITEKTOA
Aitzol Aurrekoetxea Pujana
Lehendakari Agirre 23, behea
aitzol@coavn.org - 675 705 111

Recreativos Gubi S.L.
Angel Larrea
Zornotza Tfnos 649 86 95 36

KIRRU
ILEAPAINDEGIA
KOSANA eta ROBER
SABINO ARANA 38
IGORRE
Tlf. 94 631 92 00

GARANTXE
Autoeskola
TEORIA EUSKARAZ
ZEIN ERDARAZ
Lehendakari Agirre 31
Tfnos: 94 673 71 32
48140 IGORRE (Bizkaia)
garantxe@telefonet.net

ZUZENBIDE
ASEGURUAK:
AUTOAK
ETXEBIZITZAK
DENDAK
ISTRIPUAK
BIZITZA...
ABOKATUAK:
ZUZ. ZIBILA
KONTSUMO ZUZ.
ADMINISTRATIO ZUZ.
INGURUGIRO ZUZ.
AHOLKULARITZA:
LAN ZUZENBIDEA
ZERGAK
KONTABILITATEA
Tlf. 94 673 71 41 - 94 673 70 55 - 94 612 11 96 - Faxa 94 612 11 96
Sabino Arana 3, behea - Igorre (Bizkaia)

BIXER
TABERNA
Beko kalea, 2 - Telf. 94 631 73 65 - VILLARDO

Jose Luis
Corbacho
pintura lanak
Sabino Arana, 3. 3a
Igorre 48140 Bizkaia
94-673-70-87
609-79-40-54

Orre
FOTOKOPIAK - PAPERDENDA
L. Agirre, 2.
48140 Igorre (Bizkaia) Tfnos.: 94 673 61 25

Pinturas Aratia
Javi Morato
Tel. 628 443 992

ARRATIA AUTOESKOLA
karneta euskaraz zein erdaraz
Garbe, 10 - 48140 Igorre (Bizkaia)
Telefonos 94 631 36 31 Faxa 94 673 70 80
e-por: urratia@euskatel.net

AINARA MURGIA ETA IKER URTIAGA

Musikaren museoa antzezlan barria aukeztu dabe urri bigarrenaren 14an Antxo eta Pantxa Arratiako pailazoak

Orain dala urte bete hasi ziran Iker Urtiaga eta Ainara Murgia kale antzerkia egiten. Ordutik leku askotan eskeini ditue antzezpeneak eta umeakaz daukien alkarreragin berezia ikusita, bigarren antzezlan honegaz hasi dira urri bigarrenaren 14an Barakaldon.

Rakel Aldekoa Diez

Aurkeztu zeuen buruak eta Antxo eta Pantxa pertsonajeak.

Iker Urtiaga: Nire pertsonajea Antxo da, eta Antxo izena dauka askotan okertzen nazalako eta antxoa esakera horretatik Antxo izena hartu neban. Ikusleai adiztera emon gura deutseguna da okertzen nazala baina konturatu eta konpontzen ahalegintzen nazala. Lehenengo obran dj-a izan nintzan.

Ainara Murgia: Pantxa naz eta Pantxa pertsonajearen izena dator lasaia dalako ez daukalako denporarik alde batetik bestera joateko, ez daukalako erlojurik eta beti leku guztietara berandu doalako... Horrez gainera, jantzari fina naz.

Sortu barriak dira pertsonajeok ezta? Noz sortu ziran, zelan eta zergaitik.

I. U.: Sasoi honetan urte bete izango da taldea sortu zantetik.

A. M.: Guk alkarregaz lan egiten genduan beste gauza baten eta beti gengoan komentetan pailazo talde bat sortutea ea posible ete zan... Aukerea sortu jakun auzoko jai batzuetan eta Ikerrek deitu ninduan. Animau egin ginan eta hortik urten zan. Beraz, hori dala-eta, antzezlan prestatzen hasi ginan.

I. U.: Berez, egun baterako prestatu genduan. Gu, izatez biok ezkeraldekoak gara, ni Barakaldokoa, eta Ainara Sestaokoa. Barakaldoko auzo batetik deitu

euskuen mesede bat egiteko.

A. M.: Auzoko jai horretarako egin genduan antzezpene, baina gure antzezpenearen aurkezpen ofiziala Diman izan zan.

Beste pailazoen aldean, zer daukazue diferente?

I. U.: Ez dakit beste pailazoen aldean zer daukagun diferente, hori gure ikusleak esan beharko dabe. Guk daukaguna ilusinoa da.

Zer topau daiteke zuon ikuskizunetan?

I. U.: Danetarik. Gehienbat, animazioak dira eta gure helburua umeen parte hartzea da. Gure helburu orokorra, jantza egitera heltzea da, beti. Baina tartean, magia apur bat egoten da, bromaren bat, eta abar. Umeak protagonista izan daitezen ahalegintzen gara.

A. M.: Gehienbat umeen parte hartzea izaten da, nagusiak parte hartze gitxiago izaten dabelako.

Ze lotura daukie Antxo eta Pantxak Arratia, Ubide eta Zeberiozagaz?

I. U.: Lotura handiena Arratiagaz da. Orain dala urte bi pasatxo Dimara etorri nintzan biziten. Gainera, Igorreko jaietan be egin genduan antzezpene. Normalean, gure antzezpeneak jai eta eskoletan egiten doguz. Hendaian be izan ginan Euskal Eskola publikoaren jaietan eta Hendaia izan da orain arte antzeztu dogun lekurik handiena.

Azaldu orain arte egindako ibilbidea. Egon da saioen bat zuentzat espeziala izan

"Aurten 12 aktuazino izan doguz. Ez dakigu asko edo gitxi ete diran. Gu oso pozik gagoz eta hori da garrantzitsua"

**dana? Anekdotarik?**

A. M.: Niretzako bereziena izan zan nire eskolara bueltau ginatean antzezlan egiten. Gainera, ez egozan gurasoak eta umeak oso gustura egozala nabaritzen zan.

I. U.: Gainera, irakasleak be parte hartu eben. Oso desbardina da kalean egitea gurasoak dagozanean edo eskola orduetan. Niretzako bereziena nire auzoan egin genduan izan zan, kaotikoa izan zalako, "bildur eszeniko" hori gairiditu gendualako. Normalean, emoten dau leku handietan egiten diran antzezpeneak bereziagoak izango dirala baina gero esperientziak ez deusku hori esaten. Inoz, arazo teknologikoak izan doguz; esaterako, mikrofonoak txarto erantzutea. Banan-banan egin behar da berba holako kasuetan.

A. M.: Batzuetan, teknologia izaten da... Gure anekdota gehienak teknologiaz daukie zerikusia. Ordenagailu bat apurtu jakun ikuskizun baten esaterako, eta horrek azken baten inprobisaziora erotzen zaitu. Normalean, zorionez, ondo urtetan jaku.

Zeintzuk dira hurrengo zitak eta proiektuak?

A. M.: Oraintsu urte bete egin dogu eta antzezlan barri bat prestatu dogu. Barriro be deitu euskuen lehenengo antzezlan egiten genduan lekutik eta han egin dogu aurkezpena.

I. U.: Obra *Musikaren museoa* deitzean da. Musikearen historiaren ingurukoa da. Antzezpeneak ordu bete irauten dau. Lehenengo obra, *Eutsi* jantzari buruzkoa zan eta oraingoa *Musikaren museoa* musikearen ingurukoa.

A. M.: Oso emozionala gagoz. Gainera, prestaketa oso polita izan da.

I. U.: Dana dala, hau biontzat *hobby* bat da. Ateraten dana aterako da, ez daukagu helburu handirik. Deitzen deuskuenean, ahal badogu, joango gara. Aurten, 12 aktuazino izan doguz. Guk ez dakigu asko ala gitxi ete diran. Oso pozik gagoz eta hori da garrantzitsua. Badago, esaldi bat antzezpene baktaren amaieran esaten doguna eta guri asko gustetan jakuna. Gora bihotzak! Beraz, gora bihotzak!

www.begitu.org

publizitatea
94 631 73 14 eta 649 979 115

**Gugaz harremanetan ipinteko
94 631 73 14 eta 649 979 112
begitu@topagunea.com**

